

ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko martxoaren 31 > Astelehenetako VI. urtea > 183. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

"Euskara asko erabiltzen bada ere, kirol arloan beharbada ez da horrenbeste erabiltzen"

Maripi Laskurain
Euskara teknikaria > 9



G2a

Aukeran dantza
taldearen 10.
urteurrena > 23

BERGARA

Kolunbarioak jarriko dituzte
Bergarako kanposantuan > 11

KULTURA

Joseba Lasagabaster txapeldun
Oñatiako Bertso Txapelketan > 24

KIROLA

Bergara Hiria pilotxa txapelketa
hasiko da bihar > 19

AISIALDIA > ARRANTZA DENBORALDIA ABIAN

Eguraldia lagun, arrantzaleek ekin diote denboraldi berriari

DEBAGOIENA Ibarreko zaleak
hasi dira dagoeneko gure
erreketan amuarrainak
harrapatzen

UZTAILERA ARTE Arrantza
denboraldia martxoaren 23an
zabaldu zuten eta uztailaren
31ra arte izango da zabalik

ZALEAK Gure ibarrean zale
asko dago, gizonezkoak
gehienak. Oñatin eta Aramaion
txapelketak egiten dituzte > 02

EKONOMIA > ARRASATE

MCCK logotipo berria

Mondragon marka
erabiliko dute,
'Humanity at work'
leloarekin > 05

**Andrey Amador
garaile Gorlan,
eta Unai
Arantzabal
laugarren**

Lizarte taldeko txirrindulariak amateur mailako ziklistarik indartsuena dela erakutsi zuen Gorlako maldetan, denboraldiko hirugarren garaipena lortuz. Hain zuzen ere, 2:24:43ko denbora egin zuen helmugan. Harekin batera igo ziren podiumera, Mikel Filgueira eta Eneko Echeverz. Bestalde, Unai Arantzabal berargarra laugarren tokian sailkatu zen. Atzo jokatutako Gorlako Igoeraren 34. edizioan 160 ziklistak hartu zuten irteera; amaierara, berriz, 94 bakanrik heldu ziren > 15



PODIUMA Lasterketa bukatu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zen Gorlak bertan. Ezkerrean, Arantzabal berargarra.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarritzeta > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-20
Kultura > 21-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

ELKARRIZKETA > MAIDER UNDA

Maider Unda, Pekinerako gertatzen

Maider Unda borrokari aramaiorarrak Pekingoko Joko Olinpiokoetan hartuko du parte. 120 egun baino ez dira geratzen Joko Olinpiokoak hasteko. Undak historia egin nahi du Txinan, dominaren bat eskuratuta. Berarekin izan gara. > 20

HERRIAK > ANTZUOLA

Auzolanean iturriak konpontzen Antzuolan

Iturriak auzolanean konpontzeari ekin zioten zapatauan Antzuolan. Lehenbiziko deialdiak ez zuen nahi besteko arrakastarik izan eta lau lagun baino ez ziren lanean ibili, Pedro Iturbe Antzuolako alkatea tartean. Laskurain Errota-koarekin amaitu ondoren, Aldabekoa eta Arrolakoa txukunduko dituzte > 09

KIROLA > SASKIBALOA

MU igoera bidean, Loiun irabazita

Mondragon Unibertsitateak 66-72 irabazi zuen zapatauan Loiun, Urdanetaren kantxan. Iñaki Merinoren mutilek sendo jarraitzen dute igoera fasean. Lehen postuan dira arrasatearrak. Asteburuan Iruñeko Viajes Marfilen aurka jokatuko dute. > 17

AISIALDIA > ARRANTZA DENBORALDIA ABIAN

Kanabera gertu dute arrantzaleek erreketan amuarrainak harrapatzeko

DENBORALDIA Arrantza denboraldia martxoaren 23an hasi zen eta uztailaren 31ra bitartean egin daiteke arrantza erreketan; urtegian irailaren 30era arte

LIZENTZIA Beharrezkoa da lizentzia eskuratzea arrantzan jarduteko; federatuta egotea ere komenigarria da istripu asegurua izateko

TXAPELKETAK Ibarrean bi arrantza txapelketa izaten dira: Oñatikoa maiatzaren amaieran egingo dute eta Aramaiokoa uztailaren 5ean



Martxoaren 23an zabaldu zuten arrantza denboraldia. Irudian arrantzale bat Oñatin, atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Lehorreko arrantzaleak, arrain gutxi saskian, dio esaerak. Baina itsasoz barrurako txokoetan ere bada arrantzarako aukerarik eta baita arrantzalerik ere. Barnealdean errekak, ibaiak eta urtegiak baliatzen dituzte, kanaberak eskutan, arraineak noiz amua irentsiko zain egoteko.

Joan den martxoaren 23an hasi zen arrantza denboraldia gurean eta uztailaren 31ra bitartean egin daiteke arrantza erreketan; urtegietan, berriz, irailaren 30era arte.

Debagoienean, herri inguruoko erreketara joaten dira arrantzalerik gehienak. "Ibarrean,

Oñatin, asko egiten da arrantza Arantzazuko errekan, Zubillagan, Olabarrieta, Araotzen...; Arrasate eta Leintzko jendea Urkulura ere joaten da; eta ibarreko arrantzale batzuek lutxoa arrantzatzerako landa ingurura joaten dira. Hemengo erreketan amuarrainak arrantzatu izan dira beti eta orain ere hala da", esan digu Oñatikoa Alzu eliza eta arrantza dendako Igor Arrese.

Legearen arabera aurten hiru amuarrain harropa daitezke gehienez Gipuzkoan eguneko; lau Bizkaian; eta bost Araban. Neurriari dagokionez, amuarrain arruntak 22 cm izan behar ditu gutxienez eta 35 cm gehie-

"Gero eta gehiago dira amuarrainak harrapatu ostean, etxera eraman beharrean arrainak uretara bueltatzen dituzten arrantzaleak; eta kultura hori hedatuz doa piskanaka"

nez Gipuzkoan. "Hori baino handiagoak edo txikiagoak bota egin behar dira uretarra. Amuarrain ostadarretan ez dago gehieneko mugarik", azaldu digu Arrese.

AMUARRAIN HANDIAK ERREKETAN
Arrainekin zer egiten den galdetuta Igor Arresekin esan digu gero eta gehiago ikusten dela jendeak amuarrainak harrapatu ostean uretara bueltatzen dituela etxera eraman beharrean. "Lehen errekkak birpopulatu egiten ziren arrainkumeekin; orain handiaik botatzen dituzte. Joan den astean, esaterako, Diputazioak kilo eta erdiko amuarrainak bota zituen Urkulun eta erreketan ere

botatzen dituzte. Amuarraina izatez erraz ugaltzen den animalia da baina ur baldintza onak behar ditu horretarako. Horri dagokionez, egun, kutsaduraz gain, beste arazo bat dago. Zen-tralen eraginez ur kopurua asko aldatzen da", dio Arrese.

ARRANTZA TEKNIKAK
Harrapatzetan dituzten arrainei dagokienez, ez dago barrietae askorik. Bai, ordea, arrantzatze-ko moduari errepasatzen badiogu. Zizareekin egin daiteke arrantza edo modu artifizialean: koi-larekin, biniloarekin edo euliekin. Zizare edo koilara bidezko teknikak ez dira baliagarriak

amuarrainak hil nahi ez badira, arrainek amua barruraino irenten dutelako. Horretarako, eltxo edo euli bidezkoa da egokia. Gainera, ez da askok uste bezala kanabera bota eta arraina hurbildu artean zain egon behar, askoz aktiboagoa da.

Bakardadea gustuko dutenen-dako zaletasuna da askoren iritzian arrantza, baina lagunekin ere joaten dira asko. Igor Arre-seren esanetan, "erreketan arrantza egitera bakarrik joatea da beharbada ohikoagoa eta urtegitarra, berriz, taldean". Arrantzaleen artean askotarik jendea omen dago eta gazteak gogotsu dato: "13-14 urterekin hasten dira eta 20 urtetik aurrera baka-

rrik edo lagun artean. Helduak ere badaude. Arrantzaleen artean %90-95 gizonezkoak dira", dio Igor Arresek.

EKIPAMENDUA ETA LIZENTZIA

Bakarrik zein lagunekin arrantzara egoki prestatuta joatea ez da kalterako izaten. Oinarrizko ekipamendua: kanaberak, txirrikak, pitak, amuek eta berunek osatzen dute; horretaz gain, erreketan, barrura sartzeko, bota handiak ere behar izaten dira. "Oinarrizko ekipamendua lor daiteke 15 edo 20 euroren truke, baina euliekin ibiltzeko kanaberak 600 eta 1.000 euro artekoak izan daitezke. Ekipa oso ona bada, 3.000 euroa ere hel daiteke. Gainera,

kontuan hartu behar da arrantzarako osagarriak oso erraz galten direla eta berritu beharrak gastua dakarrela. Koilarak 1,40 euroan eros daitezke; pita 2 eurotik 10 euroa bitartean...", azaldu digu Arresek.

Ekipamenduaz gain, lizenzia ere beharrezko da guardak isuna ipintzea nahi ez bada behintzat. Mikel Azkarate guarda da eta erreka inguruetan ibiltzen da arrantzaleei lizenziak eskatzen: "Lizenziak ongi dauden begiratzea da gure ardura. Oso arraroa da lizenziarik gabe dabilen arrantzaleren bat aurkitzea. Denboraldi hasieran arrantzale gehiago ibiltzen da baina askorik ere ez, egon ere ez dago amuarrain askorik-eta", esan digu.

Arrantzarako lizenzia beharrezko da. Horretarako ez da azterketarik egin behar, nortasun agiria aurkeztuta nahikoa da. Ordaindu beharreko zortzi edo hamar euro dira eta erretiratuek Araban doan dute eta Gipuzkoan prezio erdian. Federatzea, berriz, ez da beharrezko; baina bai komenigarria, istripua izanez gero segurua izateko.

TXAPELKETAK IBARREAN

Aisiaaldirako jarduera da arrantza eta kirol arrantzaren harrapaturako arrainak ezin dira saldu. Baino erreka bazterretan zein barruan ibiltzeari bestelako eteknikik ateratzen diete arrantzaleek. Etxean edo lagun artean jaten dituzte amuarrainak batzuek, lagunei opari eman besteek.

Arrantzaga giroan ohikoak dira txapelketak ere. Gurean, Oñatin eta Aramaion antolatzen dituzte urtero. Aramaikoa Oilagor ehi-za eta arrantza elkartea antolatzen du eta Cristobal Goikoetxea kideak esan digu umeendako txapelketa herrian bertan egiten dutela: "20-30 lagunek hartzen dute parte eta propio askatzen ditugu amuarrainak errekan txapelketarako. Aurten uztailaren 5ean izango da. Baino oro har ez dago arrantzale askorik Aramaion, amuarrainak ere gutxidaude-eta".


Oñatin aurten maiatzaren amaieran izango da eta 40-50 arrantzale inguru espero dituzte antolatzaileek. Kontuan hartzene dute errekkak ur maila ego-kia izatea arrantzarako.

Urak hazita datoz azken aldiak eta ur handietan, arrainak ere handiak dira esaeraren araberak. Arrantzaleak, hortaz, zorteko daude.

ARRANTZA TEKNIKAK

Zizarea

Lurra axtarrika eginez edo edozein ortutan aurki daitezke zizareak. Komeni da zizarearen tamaina amuarenera egokitzea. Zuzenean ipin daiteke amuan edo lehenengo 15 cm inguruko orratz batean kateatu eta gero amura pasa. Zizarea tingo kateatuta egon behar da eta ez da amurik ikusi behar. Amuarrainak ikusmen oso ona du-eta distirarik sumatuz gero ez litzateke gerturatuko.



Koilara

Koilara bidez arrantzatzeko teknika gazteen artean oso hedatua dago. Metalezko xafla batek estaltzen ditu amuak. Amua uretarra bota eta arrantzalea txirrikari eragiten hastean, koilara biraka hasten da errekan eta horrek bihurtzen du, hain zuzen ere, amua erakargarri amuarrainendako; mugimenduak eta distirak arrain txiki bat irudikatzen dute-eta.



Eulia

Euli bidezko arrantza izenak dioen moduan euli itxurako amu artifiziala erabiliz egiten da. Arrainak benetako eulia dela pentsatu eta jatera doanean harrapatzen da. Amua ahalik eta urrutien bota eta ekartzea da kontua. Batzuek dendan erosten dituzte euliok baina arrantzale finenek eurek egiten dituzte eskuz. Amuok ez dute kakorik, hortaz, amuarrainei ez diete kalterik egiten.



kontuan hartu behar da arrantzarako osagarriak oso erraz galten direla eta berritu beharrak gastua dakarrela. Koilarak 1,40 euroan eros daitezke; pita 2 eurotik 10 euroa bitartean...", azaldu digu Arresek.

Ekipamenduaz gain, lizenzia ere beharrezko da guardak isuna ipintzea nahi ez bada behintzat. Mikel Azkarate guarda da eta erreka inguruetan ibiltzen da arrantzaleei lizenziak eskatzen: "Lizenziak ongi dauden begiratzea da gure ardura. Oso arraroa da lizenziarik gabe dabilen arrantzaleren bat aurkitzea. Denboraldi hasieran arrantzale gehiago ibiltzen da baina askorik ere ez, egon ere ez dago amuarrain askorik-eta", esan digu.

Arrantzarako lizenzia beharrezko da. Horretarako ez da azterketarik egin behar, nortasun agiria aurkeztuta nahikoa da. Ordaindu beharreko zortzi edo hamar euro dira eta erretiratuek Araban doan dute eta Gipuzkoan prezio erdian. Federatzea, berriz, ez da beharrezko; baina bai komenigarria, istripua izanez gero segurua izateko.


TXAPELKETAK IBARREAN

Aisiaaldirako jarduera da arrantza eta kirol arrantzaren harrapaturako arrainak ezin dira saldu. Baino erreka bazterretan zein barruan ibiltzeari bestelako eteknikik ateratzen diete arrantzaleek. Etxean edo lagun artean jaten dituzte amuarrainak batzuek, lagunei opari eman besteek.

Arrantzaga giroan ohikoak dira txapelketak ere. Gurean, Oñatin eta Aramaion antolatzen dituzte urtero. Aramaikoa Oilagor ehi-za eta arrantza elkartea antolatzen du eta Cristobal Goikoetxea kideak esan digu umeendako txapelketa herrian bertan egiten dutela: "20-30 lagunek hartzen dute parte eta propio askatzen ditugu amuarrainak errekan txapelketarako. Aurten uztailaren 5ean izango da. Baino oro har ez dago arrantzale askorik Aramaion, amuarrainak ere gutxidaude-eta".

Oñatin aurten maiatzaren amaieran izango da eta 40-50 arrantzale inguru espero dituzte antolatzaileek. Kontuan hartzene dute errekkak ur maila ego-kia izatea arrantzarako.

Urak hazita datoz azken aldiak eta ur handietan, arrainak ere handiak dira esaeraren araberak. Arrantzaleak, hortaz, zorteko daude.



Alex Gardoki amuarrainak arrantzatzen ditu batik bat.

I.A.

Alex Gardoki > Arrantzalea

"Errekak hazita datoz eta horrela zaila da arrantzatzea"

I.A. > BERGARA

Txitikitak du arrantzarako zaletasuna Alex Gardoki bergararrak. Egun, bestelako konpromisorik ezean, arrantza denboraldian, zapatuetan joaten da lagun giroan arrantzara.

Zer arrantzatzen duzu?

Amuarrainak. Mugak ipintzen dituzte arrainen tamainari dagokionez eta hori beti errespetatzen dugu. Baino ez da erreza gertatzen pieza onak hartzea...

Nondik datorkizu zaletasuna?

Etxetik, aitak erakutsita. Orain dela 30 urte inguru hasi nintzen; lehenengo aitarekin joaten nintzen Osintxura, Angiozarrera...; gero, lagunekin, bizikleta hartu eta inguruko erretetara joaten ginen.

Arrantzatutako amuarrainekin zer egiten duzu?

Gehienetan etxera eramatea izan da orain arteko ohitura, jateko edo lagunen bat emateko, eskatuz gero. Azken aldian, ordea, txipa aldatu eta hasi gara noizean behin errekan askatzen amuarrainak.

Inoiz harrapatu duzu pieza berezirik?

Noizbait bai. Gogoandut nola orain dela urte batzuek Ega errekan ia ordutetz ibili nintzen amuarrain batekin borrokan eta azkenean ez nuen ateratzea lortu. Izango zituen bi kilo eta erdi edo hiru kilo eta ezin izan nion irabazi; beti izan dut gogoan.

Aurtengo denboraldia nola aurreikusten duzu?

Pare bat egunetan-edo joan naiz arrantzara eta harrapatu ditut amuarrainak, baina errekkak, hazita datoz eta horrela zaila da arrantzaga egitea. Arrantzaleok zain gaude erreketako ur mai-la jaisteko eta eguraldi ona egiteko.



OMU
KERAMIKAK

ZERAMIKA • BAINUA
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerraka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



PRECINOX Argazkian, Ulmak Legazpin duen lantegiaren kanpoaldea.

GOIENKARIA

INDUSTRIA > EKITALDIA

Etzi, Legazpiko lantegia inauguratuko du Ulmak

Ekitaldian Diputatu Nagusi Markel Olanok eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirrek parte hartuko dute, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Ulma Precinox S.Coop. lantegia 2007ko udaberrian martxan jarri zen arren, inaugurazio ekitaldia etzi egingo dute. Legazpiko Olaberria industria gunean dagoen lantegira hurbilduko dira, besteak beste, Diputatu Nagusia Markel Olano, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua Ana Agirre, MCCko presidente Jose Mari Aldekoa, Legazpiko alkatea Sotero Plazaola, eta alkate ohia Jose Ramon Larrañaga. Hain zuzen ere, inaugurazioa ekitaldia 11:00etan hasiko da.

TEKNOLOGIA BERRIENA

Ulmak Legazpin duen eraikinak 12.000 metro koadro ditu. 2007ko udaberri aldera hasi ziren lanean, eta une honetan 40 langilek dihardute bertan. Doitasun-galaragintzarako gaiak egiten dituzte, eta haien bezero nagusiena Ulma Packaging da. "Packaging arloko sektorea hornitzea da gure helburua. Momentuz Ulma-rendako egiten ditugu lanak, baina aurrera begira, beste bezero batzuk bilatuko ditugu", dio Marketing eta Komunikazioa arduradun Joseba Alberdik. Era bere-

an, lantegi berrian punta-punta teknologiako makinak dituztela esan digu. "Lantegi berria iza-nik, teknologia berriena jarri dugu, batez ere, makinetan. Adibidez, laser bidezko makina bat dugu".

AKTIBITATE BERRIA

Legazpiko lantegia Ulma Packagingen barruan sortutako promozioa da. "Packaging negozioaren barruan dagoen aktibitate berri da Precinox. Oraindik ezin dugu negozio berri bat dela esan, hasiberria da-eta", azaldu digu Joseba Alberdik.

Zazpi dira Ulmaren negozioak: Agricola, Carretillas Elevadoras, Construcion, Forja, Handling Systems, Hormigon Polimero eta Packaging.

Aita-Menni ospitaleko azpi-kontratazioak salatzeko elkarretaratzea

ELA sindikatuak deitura azpi-kontratazioak salatzeko elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Aita-Menni ospitalearen aurrean. Besteak beste, "zerbitzu sozial erreala, doakoak eta unibertsalak" aldarrikatu zituzten.

Era berean, administrazioek osasungintza publikoa ahultzen daramaten estrategiak salatu zituzten; hain zuzen, zerbitzuak esku pribatuetan uztea. Gainera, lan berdina egiteagatik, langilee diru gutxiago ordaintzen zaiela azpimarratu zuten, eta lan baldintzak eskasagoak direla.



ARRITXU BARRUSO

HEZKUNTZA > 'PROIEKTEIBAR' SARIA

Miguel Altunako ikasleak sarituta lehiaketa batean

Etxebizitza domotikoa eta 'Erloju digitala' izeneko lanekin jaso dituzte, lehen eta hirugarren sariak, hurrenez hurren

M.B. > BERGARA

Hiru sari lortu dituzte Bergarako Miguel Altuna Institutoko ikasleek Eibarko Ingeniaritzako Tekniko Industrialeko Unibertsitateak antolatutako Proiekteibar lehiaketan. Hain zuzen ere, Maite Cot Sanchez, Esther Diaz Caballero eta Abdelouahab Boubabsa ikasleak eta Miguel Altuna Institutua bera izan dira sarituak.

Santi Barreño irakaslearen gidaritzapean sei proiektu aurkeztu zituzten Bergarako institutuko ikasleek, hain zuzen ere, Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoetako 2. mailetako ikasleek.

ENERGI AURREZTU

Lehenengo saria eskuratu dute Maite Cotek eta Esther Diazek Etxebizitza domotikoa izeneko proiektuarekin. Etxebizitzen ongizatea, erosotasuna eta energia aurrezten laguntzea da proiektuaren helburu nagusia. Hori lortzeko, hainbat teknologia elkarrekin hartu-emanan jartzen dira, hau da, elektrizitatea, elektronika, informatika eta komunikazioa.

Hotz-beroa antzemateko sentsorea duen erloju digitalarekin jaso du hirugarren saria Abdelouahab Boubabsak.

Era berean, gehien inplikaturiko ikastetxeari saria Miguel Altuna Institutua jaso du.

PROIEKTUAK BULTZATZEA

Proiekteibar lehiaketaren helburua hezkuntza ez unibertsitarioko ikasketetan zientzi-teknologii alorrean proiektuak bultzatzea da. Batxilergo eta Goi Mailako Euskal Autonomi eta Nafarroako erkidegoko ikasleei zuzendutako lehiaketa da.



SARIDUNAK Irudian, Barreña irakaslea, Cot, Diaz, Bouabsa eta Laskurain. M.A.

> ZINEMA

Emakume zuzendariei eskainitako zinema zikloa Arrasaten

Emakume Txokoak antolatuta, emakumezko zinema zuzendariei eskainitako zikloa izango da Amaia antzokian eguenetik aurrera.

Hirugarren urtez antolatu dute zinema zikloa, emakumeen inguruko gaiak plazaratzeko helburuarekin. Eguenean, apirilaren 3an, Nasjaf film laburra eta Andrea Stakaren Das Fräulein filma eskainiko dituzte; hilaren 10ean, Preguntas sin respuestas; 17an, Propiedad privada film laburra eta Lucia Puenzoren XXY; eta 24an, Away from her. Emanaldi guztiak 20:30ean izango dira

ARRASATE > SAN VIATORREN SALMENTA

Arizmendi Ikastolak San Viatorreko eraikina erosiko du

Bi aldeek hasierako akordioa lortu dute eta operazioa gauzatzea baino ez da falta; dagoeneko Gasteizera joan dira Arrasaten geratzen ziren hiru viatoristak

E.M. > BERGARA

Viatoristen etorreraren 70. urteurrena betetzen den honetan, Arizmendi Ikastolak San Viatorreko eraikina erosu du. Eraikinak 1.000 metro koadro inguru eta sei solairu dauzka eta operazioaren zenbatekoa ez dute jakitera eman bi

aldeek. Antza denez, saltzen den elizaren ondarea 1,5 milioi eurotik gorakoa denean, Vaticanoaren oniritzia ere beharrezko da. Hasiera baten, San Viatorreko batzorde probintzialak eta Arizmendiko Errekto Kontseiluak hasierako akordioa lortu zuten otsailaren hasieran. Operazioa datozen egunotan gauzatu daitake.

70 URTE ARRASATEN

Dagoeneko Gasteizera joan dira azken hiru apaiz viatoristak: Angel Maria Ipiña musakolarra, Cosme Salazar eta Fermin Otxoa. Orain arte hiru apaiz viatoristak San Viatorreko azken solairuan bizi ziren eta Arizmendi Ikastola ikasgela gehiago egiten hasi da bertan. Batxilergora zuzenduko



SAN VIATOR Arizmendik erositako eraikina, Arrasate pasealekuán.

dituzte gela horiek 2008-2009 ikasturtean.

1938. urtean etorri ziren viatoristak Arrasatera, San Jose eskola zaharrera. 1960. urteko hamarkadan, hazkunde demografikoaren erruz, San Jose ikas-

tetxea txiki geratu zen eta 1967-68 ikasturtean San Viatorreko eraikin berria inauguratu zuten. Komunitatea 20 fraidez osatuta egon zen garai baten. Azken urteotan viatoristen komunitatea hiru apaizetara murriztu da.

ARANTZAZU > MARTXOAREN 24AN HIL ZEN

Agur Enrike Arozena fraide motordunari

E.M. > BERGARA

Enrike Arozena *fraide motorduna* hil zen joan den martxoaren 24an, 82 urte zituena. Arozena oso ezaguna zen Gipuzkoan, 51 urtez ibili baitzen herriz herri *Arantzazu* aldzikariaren kuotak banatzen.

1926ko otsailaren 6an jaio zen Hernaniko Pagoaga baserrian eta gaztetan etorri zen Arantzazura ikastera. 1956. urteko irailaren 10ean hasi zen aldzkariko kuotak kobratzen. Urtero 5.000 etxe inguru bisitatzen zituen motorrarekin. Alboko argazkian ikus daitekeenez, Derbi markako motorra erabiltzen zuen, male-tatxa aldean zuela. Euriak, kaz-kabarrok edo elurrok ez zuten

atzera botatzen eta joan den abuztura arte lanean jardun zuen. Esan bezala, gaixotasun luze baten ondorioz hil zen aurreko astelehenean. Martitzenean, martxoaren 25ean, egin zioten azken agurra Arantzazun Enrike Arozena frantzikotarrari.

URTARRILEAN OMENDU ZUTEN

Arantzazu aldzikariaren aro berriaren aurkezpenarekin batera, omenaldi bero eta hunkigarrria jaso zuen joan den urtarrilean, Donostia Kursaalen egindako ekitaldian.

Arantzazun haren bi anaiaj jarraitzen dute oraindik: Jose Mari Arozenak 84 urte ditu eta Luis Arozenak 80.



MOTORREAN Enrike Arozena, motorrarekin, artxiboko irudian.

ARANTZAZU

EKONOMIA

MCC taldeak logotipo berria du

Mondragon marka erabiliko dute, 'Humanity at work' leloarekin

GOIENA > ARRASATE

Kooperatiba taldeak irudi eta izen berriak izango ditu aurrerantzean: soilik *Mondragon* deitzera pasako da. Hala eman dute jakitera MCCko iturriek. MCCren orain arteko irudia laster iragana baino ez da izango. Aurrerantzean irudi eta izen berriak izango ditu: soilik *Mondragon* deituko da, izen horrekin ezagutzen baita nazioartean, egoitza zentrala duen herriaren izenarekin, alegia, eta ez hainbeste figura juridikoarekin. Baino ize-na aldatzear bat irudia ere berrituko dute: elkarri esku ematen dioten bi pertsona irudikatzen dituen *Mhizkia* izango da logotipoa, eta *Humanity at work*. Euskalazko *Gizatasuna lanean* eta gaztelarazko *Sentido humano del trabajo* leloak ere erabiliko dituzte.

GRANATE KOLOREA NAGUSI

Modu horretara, hiru hitzkoia izatetik hitz bakarrekoia izatera pasako da izena eta kooperativismoaren sorlekua nabarmenduko dute. Uztai-letik taldeko presidenteak Jose Mari Aldekoa bada ere, aurretik, kargu hori Jesus Cataniak betetzen zuen garaian ekin zioten aldaketa aztertzeari.

Esan bezala, izena aldatzear bat irudia ere berrituko dute: granate kolorea izango da erabiliko dute kolore nagusia eta horiekin batera laranja eta grisa.

MCCko iturrien arabera, logotipo berriak zera adierazi nahi du: "Lan arloan, kooperazioan eta parte hartzean gaur egun bizi dugun aro berria". Aurkezpena datozen egunotan egingo dute.

FUNK JOUR MIND

skunkfunk people do funk

(SKFK) SPRING SUMMER 08

www.skunkfunk.com

JungleFunk:

Denda alderanzgarria, naturari eta kreatibilitateari bide emanez hasi nahi dugu 2008a. Apirilak 9 Plz. Berrian, Bilbon.

Apirl hontan **Bilbo eta NY** denda konektatuko ditugu.
Adi egon!!!

www.skunkfunk.com



Apirilaren 12an, 'Bergaran euskaraz eingou' leloa duen hitzarmena sinatuko dute Bergarako

Udalak eta hainbat entitatek, euskararen erabilera bultzatzeko. Udaleko Euskara teknikari

Maripi Laskurainek izan gara, egitasmoaren berri jasotzeo. Bergaran euskara asko erabil-

tzen bada ere, kirol arloan hutsunea dagoela eta neurriak beharrezkoak direla esan digu.

Maripi Laskurain > Bergarako Udaleko Euskara teknikaria

"Kirol arloan euskara ez da hainbeste erabiltzen"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara teknikari Maripi Laskurainek datorren astean sinatuko den *Bergara euskaraz eingou* izena duen hitzarmena ederki ezagutzen du, bera ibili da eta azkenaldian hori abian jarri nahian. Egitasmo horren nondik norakoak azaldu dizkigu ondoren go lerroetan.

Nolatan Bergaran euskaraz eingou hitzarmena?

Esan beharra dago ez dela hutsetik hasitako zerbait, izan ere, 1991n egin zen eta antzeko hitzarmen bat, *Hau ez da Bergarako besarkada* izenarekin. Orduan 49 entitatek sinatu zuten euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena. Handik lau urteira beste hamabost sartu ziren. 1998ra arte, elkarlanean jardun genuen eta borondate apur batekin, aurrera pausuak ematen zirela igarri genuen. Gero, hor geratu zen. Udalak beste egitasmo batzuk jarri zituen abian.

Zergatik ekin zenioten berriro horri?

Euskara Biziberritzeko Plangintza martxa jarri zenean, 2003an, arlo hori berreskuratzea erabaki genuen, arlo sozio-kulturalean diharduten taldeek jende asko mugitzen dutelako.

Hizkuntzaren inguruko diagnostika egin zenuten ondoren. Euskara sasoia onean dago?

Bai, orokorrean bai. Administracio arlotik hasita, lan gehiena euskaraz egiten da. Hala ere, diagnostikoa egin ondoren, ikusi da Bergaran asko egiten dela euskaraz baina, ume eta gazteei begira egiten diren hainbat jardueran gaztelania dezentre era-biltzen dela. Hutsune hori, gehienbat, kirol arloan igarri da; euskara ez da hainbeste erabiltzen. Borondatez dabiltzan elkarteen hutsuneak daude. Beraz, bida zerezgina. Horretan sentsibilizazioa importantea da, elkar-te bakoitzak, ahal den neurrian, euskaraz egin dezan.

Zenbat elkartek eman diote hitzarmenari babesia?

Dagoeneko arlo sozio-kulturaletik lotutako 65 entitate-

ren baietza jaso dugu. Oraindik erantzunak jasotzen gabilta eta beraz, apirilaren 12ra bitartean, kopuru hori handitu daiteke.

Pozik zaudete jasotako erantzunarekin?

Bai. Hasteko oso emaitza ona dela iruditzen zait. Gainera, kontuan hartu behar da ekimen hori zabala dela eta sinadura-ekitaldiaren ostean, elkarteren batek sartzeko interesa baldin badu, arazo barik egin dezake. Aarloro sozio-kulturalean mugitzen diren taldeei zuzenduta dago.

Zenbat urteko iraupena du?

Printzipioz, lau urterako sinatuko da. Urtez urte balorazioak egingo dira eta zer premia dagoen aztertuko da. Hortik aurrera, jardunean jarraitu beharra dagoela iruditzen zait. Elkarrekin horien zuzendaritzat batzordea aldatzen joaten da eta hori gertatzean, elkarlana mantentzea ona litzake; euskararen erabilera kontuan eduki dezatela.

Nori zuzenduta dago?

Irekia da eta beraz, edozeinek parte hartu dezake. Diagnostikoa egiterakoan, kontuan izan genituen gehienbat umeendako eta gazteendako lan egiten dutenak baina baita pertsona nagusiendako ekimenak antolatzen dituzten taldeak ere. Esaterako, San Joxepe erretiratuen elkartearrekin ere harremanetan izan gara. Mota askotako taldeak sartu dira, hala nola, odol emaileen elkartea, Orfeoia, Pol-Pol argazkilarietako taldea eta akademiak nahiz ikastetxeak. Denetarik dago.

Zeintzuk dira entitate horiek bere gain hartuko dituzten konpromisoak?

Beti ere, hitzarmenean jarri dugu ahalegina egingo dela, bida-kigulako taldeen egoera oso ezberdina dela. Hartutako konpromisoen artean honako hauek dira nagusienak: zuzendaritzako kideak euskaldunak izango dira; barne erabilera aktak eta inprimakiak euskaraz egingo dira; kanpora begirako irudiak euskaraz izango dira; baziodeekiko harremanak euskaraz izateko ahalegina egingo da; euskaldune-



Maripi Laskurain, Udaleko Euskara Zerbitzuan, egunenaren.

MIRIAN BITERI

"Borondatez dabiltzan elkarteen hutsuneak daude; beraz, bida zeregina"

"Sentsibilizazioaren argiak piztuta egon behar du. Hitzarmenekin hori lortzen da"

kin euskara hutsean eta bestekin bi hizkuntzetan. Horrekin ez dugu esan nahi dena euskaraz egin behar dugun baina, euskarari lehentasuna emateko irizpideak zehaztu nahi dira; eta hitzarmena sinatzen dutenen entitateen arteko harremanak euskaraz izango dira.

Nobedaderik al dago 1991ko eta oraingo hitzarmenaren artean?

Ez, antzekoak dira. Bietan ere, euskararen aldeko ahalegina egingo dela azpimarratzen da.

Udalak laguntzak bideratuko ditu horretarako. Zehaztuta dituzue dagoeneko?

Bai. Elkarrekin batzuek eskatu digute informatika munduan euskaraz dagoen informazioa. Hala,

baliagarria izan daitekeen materiala eskainiko dugu. Horrez gain, idatzi ereduak prestatu; eta ikastaro zehatzak ere antolatu, zuzendaritzat batzordeko edo entrenatziale lanak egiten dituztenak; euskara klaseetara joateko laguntzak eskaini; eta webguneak euskalduntzko dirulaguntzak emango dira. Testuak zuzentzeako zerbitzuari, bestalde, lehentasuna emango zaio.

Antzeko hitzarmenak sinatu dira ibarreko beste herri batzuetan. Emaitza ona ematen dute horrelako ekimenek?

Aurrera pausuak ematen dira horrekin. Baino, importantea da sentsibilizazioaren argia piztuta izatea. Euskararen alde egin dezaketen horretan pentsatu behar dugu.

oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

> Aste bukaeretako irteerak gazteendako

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian barrena* delako programa berritu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

BERGARA

> 1979an jaiotakoek ospakizuna izango dute

1979an jaiotako berigarrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 11 0090081875 kontu korrontean.

BERGARA

> 1970ean jaiotako lehen kinto ospakizuna

1970ean jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute apirilaren 12an. Lehenengo, Ariznoa tabernan batuko dira, 20:00etan, eta Azpeitxi jatetxeen afalduko dute gero. Izena emateko, 20 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 12 0091121307 kontu korrontean.

DEBAGOIENA

> Hiru Tenpluen Ibilbidea egingo dute

Mundumira jaialdiaren barruan, Hiru Tenpluen Ibilbidea antolatu dute: GR-120 bidea jarraituko dute, Loiolaiko Santutegitik, La Antiguako baselizatik gero,

Arantzazuraino. Maiztaren 31n izango da, 06:00etan. Derrigorrezko da izena ematea, leku kopuru mugatua dagoezako. Argibideak: 902 18 14 71 / 943 79 64 63.

ARRASATE

> Taila ikastaroa, apiriletik aurrera

Arrasateko Tailaginen Elkarteak oinarrizko taila ikastaroa antolatu du. Izena emateko eta argibideak eskatzeko, deitu honako telefono zenbakietara: 645 70 59 13 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

ELGETA

> Doako biodantza eskoila dago egunean

Biodantza eskola irekia emango du Elena Subijanak egunean, apirilak 3, herri eskolan, 19:15etik 21:00etara. Doan da. Izena emateko, deitu honako zenbakietara: 606 63 61 99 (Ana Sousa) edo 699 85 80 26 (Elena Subijana).

DEBAGOIENA

> Bailaran bizi diren katalanek Sant Jordi eguneko bazkaria egingo dute apirilaren 20an

Urtero egiten duten bezala, aurten ere Debagoienean bizi diren katalanek Sant Jordi eguna ospatuko dute apirilaren 20an, eta ahalik eta jende gehienetan apunta dadin nahi dute. Bazkaria egingo dute denok batera, familiekin. Izena emateko, deitu 615 70 72 41 telefono zenbakira, apirilaren 9a baino lehen.

943 25 05 05
goienkaria@goiene.com

ARETXABAleta

> Andramari jaiak antlatzeko batzarra

Andramari jaiak antolatzeko, jai batzordea sortu dute hainbat herritarrek, eta batzarrera deitzten dituzte alderdi, elkartea eta taldeetako ordezkariek, lehenengo proposamenak jasotzea. Etzi, eguztiena, batuko dira udaletxean, 18:30ean.

ARETXABAleta

> Waldorf pedagogiaren gaineko berbaldia

Waldorf pedagogia haurreskolan delako hitzaldia egingo du Lourdes Tormes Waldorfhaur maistrak zapaturuan, hilak 5, udaletxeko ganbaran, 17:30ean.

ARAMAIO

> Jaien batzordeak batzarra deitu du

Aramaioko jaiak gertatzeko, jai batzordea sortu dute. Parte hartu gura duten herriarrei dei egiten diete

batzarrera; astelehenean batuko dira, udaletxean, 19:00etan.

BERGARA

> San Martin eskolan, batzar informatiboa

San Martin herri eskolak batzar informatiboa deitu du etzirako, eguztiena, eskolan, 18:30ean. Eskolaren proiektu eta antolamendua azalduko dituzte.

OÑATI

> Bertsolari beteranoen bertso-afaria

Isidro San Miguel, Xabier San Miguel, Benito Barrena eta beste bertsolari batzuek aferia egingo dute apirilaren 19an Nekazarien Elkartean. Nikolas Segurola izango da gai jartzalea. Txartelak salgai daude, 12 eurotan, Pako eta Guria tabernetan. Elkartean ere eman daiteke izena.

ARETXABAleta

> Dantza libre eta dantza egiptiar jardunaldiak

Dantza jardunaldiak antolatu ditu Jaiki elkartek. Dantza libre topaketak egunetan izango dira, 18:00etatik 20:30era. Mugimendua era naturalean sortzean datza dantza libreak. Izenematea apirilaren 17a baino lehen egin behar da. Bestetik, Egiptoko hainbat dantza ere irakatsiko dituzte apirilaren 2an hasita. Argibideetarako, deitu honako telefonoetara: 653 70 50 68 edo 943 53 43 96.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendaria nagusia

Nire leihoa

Aurrekoan *demanda* egin zidan prentsako nagusiak Kubaz idatzi nuelako. Atal honen arauak diotenez, norberaren kalean gertatzen direnak baino ezin dira iku si, edo asko jota herrian edo eskualdean gertatutakoak.

Batzuetan, etxeko leihora ateratzen naizenean arrazoia eman behar izaten diot. Aloñako gurutzea, egunkari saltzalea, okina, Izarraitz tabernara gosaltzera sartzen direnak eta pareko etxeak baino ezin ditut ikusi. Beste batzuetan berriz, goizeko eguzkiaren printzen berotasunaren energia gorputz barrenera sartzen zaidanean, gurutze gainetik salto egin eta askoz gauza gehiago ikus ditzaket: gure herria ikus dezaket Maule edo Tuteratik Barakaldoaino eta bere luze-zabalean antzeman daitezkeen sentsibilitate desberdinak. Munduan zehar goseak bizi diren 800 milioi bizilagunak ere ikus ditzaket. Orhan Pamuk idazle turkiarrak *Elurra* eleberriari irudikatzen duen Kars hiria eta bertako biztanleen arazo eta gatazkak ere ikus ditzaket.

Hainbeste dira ikus ditzaketenak pentsatzen hasia nai zela belar arraroren bat erretzearen ondorio dela hori guztia. Ez dakit.

> Zoritzarrik ez.

Nik ez dut baina aspaldi erretzen! Belar arraro horiek errez gero, mundua beste modu batera ikusiko nuela. Zoritzar eta gatazka gutxiagorekin: herri hau baketurik, mundua gose barik...

> Arazo berberak.

Nire leihoa itxi eta gerto ko ahaide bat zaintzen eman dut asteburua, beste eskualde batzen. Hango leihotik begiratu eta beste geografia bat ikusi dut. Baina Oñatitik ikusten ditudan arazo berberak.

debagoiendarrak kanpoan

Lorea Ramirez > Bergara

"Bergarara pozik joaten naiz, baina, oraingoz, Gasteizen geratuko naiz"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Lorea Ramirez bergararrak 31 urte ditu, eta oso gaztetatik bizi da Gasteizen: hain zuzen, ikastera joan zen 17 urte zituela, eta, ikasketak bukatuta, hantxe gelditu zen. Bergarara sarri etortzen den arren, Gasteizen gustura bizi dela dio.

Zer dela eta erabaki zenuen Gasteizera joatea?

Ingeles Filologia ikastera joan nintzen, 18 urte betetzeko nituela. Bost urtean egin nitten ikasketak, eta, gero, Gasteizen lana topatu nuen, akademia baten, ingelesezko eskolak ematen. Gero, etxebizitza hartu nuen, eta hementxe jarraitzen dut; urte hauetan guztian, ez naiz Bergarara bizi izatera behin ere bueltatu, nahiz eta bisitan sarri joaten naiz.

Gaur egun ere, ingelesaren arloan lanean jarraitzen duzu?

Bai; akademia berean jarraitzen dut lanean, eta gustura nabil. Horrez gain, lau urtean, ingelesezko udaleku batzuetan jardun nuen, Espejon; hora ere esperientzia ona izan zen. Azken urteotan, ingeles batek antolatzen dituen kanpaleku batzuetan ere lan egin izan dut. Maeztun.

Bergaran betiko lagun koadrika daukazu oraingoz?

Bai horixe! Harremanetan jarraitzen dut Bergarako lagunekin. Bestalde, iaz arte, errrentan bizi nintzen beste batzuekin; orain, mutil-lagunak eta biok geure etxea daukagu, eta gustura egoten naiz etxeen ere. Baino Bergarara maiz joaten jarraitzen dut, eta lagunekin egoten naiz.



GOIENKARIA

Bergararra Gasteizen

Ingeles Filologia ikasi ondoren, Gasteizen lana topatu eta hantxe geratu zen Lorea Ramirez.

Dagoeneko ez naiz zapatu guztietan joaten, baina Gabonetan-eta, gurasoen urtebetetzean... bai, joaten naiz.

Horrez gain, lagun asko Gasteizera ere etortzen dira: erosketak egitera, Garaiora, zinemara... eta orduan egoten gara, batez afaltzen dugu...

Gasteiztik zer gustatzen zaizu gehien?

Ez dela oso hiri handia, nahiz eta azkenaldian asko hazi den. Alde batetik bestera joatea erraza da, eta oinez ere joan daiteke. Bestalde, paseatzeko leku asko ditu; horrez gain, denetarik dago: dendak, museoak, antzerkia...

Eta gutxien?

Gasteizen bizi izatetik gutxien gustatzen zaidana da, askotan,

Bergarara joateko eta gurasoekin, lagunekin... egoteko gogoa izaten dudala. Baina, oro har, hemen primieran bizi naiz; hemen ere lagunak egin ditut, eta gustura nago.

Oraingoz, hortaz, Bergarara bizi izatera bueltatzeko asmorik ez daukat, nahiz eta Bergarara ere gustura joaten naizten bisitan.

Gasteiz ezagutu nahiko lukeen batz zer ikustea edo egitea gomendatuko zenioke?

Norbere gustuen arabera; baina nik Andramari Zuriaren plaza, alde zaharra, parkeak, Armenia... gomendatuko nizkiobe. Kirolzaleek saskibaloia ikus dezakete. Horrez gain, hileko lehen zapatu, alde zaharreko merkatarietik azoka egiten dute. Giroa ere ona da; oraingo neguan, adibidez, ez dugu hotz handirik izan.

kale inuesta**Badakizu zergaitik aldatzen den ordua? Zer iruditzen zaizu urtean bitan ordua aldatzea?**

Baltasar Gago
Erretiratua
Bergara



Fernando Rodriguez
Langilea
Bergara



Arantza Garai
Etxekoandrea
Bergara



Amaia Igartua
Langilea
Bergara

Energia aurrezko dela uste dut. Dena dela nik, behintzat, ez du gehiegi igartzen. Bainaz zerbait egutegatik egingo dute, beraz, ondo iruditzen zait. Niri, gainera, ez didate arazo handirik sortzen ordu aldaketek.

Eguneko argia aprobetaxteko eta energia aurrezko dela uste dut. Niri ondo iruditzen zait eta orain tokatzen den aldaketa da, gainera, oneña. Egunak luzeagoak izango dira-eta hemen-dik aurrera.

Argitasuna hobeto aprobetaxteko da, ezta? Niri ondo iruditzen zait ordua aldatzea; orain egingo den aldaketa, baina, baita neguan egiten dena ere. Ordu aldaketek ez didate sekula arazorik eragin.

Uste dut energia aurrezko dela. Nik etxeen ez dut gehiegi igartzen. Goiz irteten gara etxetik eta berandu itzultzen gara. Gainera, argia piztuta edukitzeko oihura handia daukat. Bainaz, ondo iruditzen zait.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Agorrosingo igerilekuak itxita Pazko astean

Bergarako irakurle batek deitu digu haserre, Agorrosingo Kirol Gunearen gainean protesta egiteko. Pazko astean kirol gunea itxi egia dutela dio eta ez zaio logikoa iruditzen egun horiek erabilteza garbiketa egiteko. Egun horietan jende asko oporretan egoten dela eta aukeretako bat kirola egitea dela dio irakurleak. Gauzak horrela, badira beste egun aproposagoak garbiketa egiteko. Bukatzeko galdera bat plazaratu du: sei egunez itxita egon ostean, martxoko kuota ez digute osorik kobraztuko, ala?

ARRASATE

> Errepideak egoera penagarrian

Arrasateko gazte batek posta elektronikoa bidali digu. Egunero joan behar izaten da Gasteizera lanera eta obren eta azken egunotako eurien eraginez, errepideak egoera penagarrian dau dela esaten du bere idatzian. Beharrezko konponketak lehenbailen egiteko eskaera luzatu nahi die Diputazioko ordezkarie, hainbat puntutan istripuan arriskua nabaria delako.

ÖÑATI

> Turismorako eskaintza gutxi

Öñatiaren baten kexa: "Txalogarría da Debagoieneko udalek turismoa bultzatzeko egiten duten ahalegina, baina kanpotik etortzen direnentzat Aste Santuko eskaintza eskasa da; denda asko itxita, kultur ekitaldirik ez... Hori ere zaindu beharko lukete".

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendiola Erredakzioa Mireia Bikuña, Jasone Zubala, Arritxu Barruso Oinarrizko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarraga Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañar Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durantea 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako
Foru Aldundia

ASTELEHENKO GOIENKARIK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaleek adierazitako iritzien erantzukizunik.

zorroztalea

Elena Laka

Zoriona

"Ez dut zoriontasunean sinisten, ezinegonean, baizik. Onartzen dut bizitan bidaudela hamar segundo edo ordu erdi irauten duten zoriontasunak, adibidez, nire lehen semea jaio zeneko. Bainaz une laburruk dira. Bizitza osoan zoriontsu dena ergela da. Horrexegaitik, nahiago dut zoriontsu baino, geldiezina izan".

Umberto Eco
El País > 2008-03-30



Gizakiaren oinarrizko helburua bizitza honetan zoriontasuna bilatzea ei da. Horretan ados, besteak beste, filosofari gredoa, budistak, Amerikako Estatu Batuetako sortzaileak. Kristautasunaren arabera, zoriona gizakiak Jainkoarekin bat egiterakoan emango da, bizitza honetan ala bestean, baina zoriona azkenik. Kontzeptua zer den argi jakin gabe ere, denok nahi dugu zoriontsu izan.

Zorion maila ezberdinak daude. Ez baita berdin lan eguna ondo bete ondoren etxeratzean familia maitagarriarekin topo egiten dueñaren zoriona, edota espelxean luze egon ondoren askatasuna eskratzen duenarena; azken hilabeteetan gorputza erasotu dion gaiotásuna menderatuta daukala esaten diotenarena; urteetan administrazioarekin borrokan ibili ondoren, paperak lortu dituen etorkinarenaren.

Sarritan zoriona gauza materialek ematen dute, eta kontrako dioenak, gezurti galanta: erostea, ametsetako kotxea, etxe bat, liburu bat, txupa bat, korrika egiteko zapatilla zoragarri horretxek... Baita ere bidai bat edo afari eder bat egitea. Gauzen bitartez zoriona nola ikutzen den ikusita, bitxia deritzo herrialde pobretara bidaiazen duenak bertako jendea zoriontsu izatea, bueltan topiko bihurtu baita azpimarratzea ze gauza gutxi dituzten, eta hala ere, zelako zoriontsu diren. Gure zorionaz galdeztetza behartzen ote gaitu horrek.

Gertakizunek ere eman diezaigute zoriona, eta ez txikia: su-etenaren aldarria, euriborraren jai-tsiera, eguraldi onaren iragarpena, futbol-taldearen garaipena. Bakoitzak bere interesen arabera, jakina.

Zorion mota guztien artean, ni Ecuren zoriontasun horrekin geratzen naiz. Fitxatuta dauzkat hamar bat segundutik hamar bat minutura iraun dezaketen zorion-uneak. Suntsikorak, eta aldi berean, bortitzak. Gauza oso txikietan gehienak, oso goi mai-lako helburuetan gutxi batzuk. Eta zorion-uneak bukatzen direnean, Ecok bezala, ezinegona, mugikortasuna. Dabilen harriak goroldiorik ez.

"Kontzeptua zer den jakin gabe ere, denok nahi dugu zoriontsu izan"

"Zorion moten artean, ni Ecuren zoriontasunarekin geratzen naiz"



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE
Mojategi: taberna eraikitzeko lehiaketa publikorako deialdia egin du > 10



> BERGARA
Kolunbarioak jartzeko lanak hasiko dituzte gaur kanposantuan; 60 jarriko dituzte > 11



> OÑATI
Tasatutako 48 etxebizitza egingo dituzte Kasablanka, Kurtiderixa eremuan > 12

BERGARA > AZPIEGITURAK

Iturriak auzolanean konpontzeari ekin zioten Antzuolan, zapatuan

AUZOLANEAN

Lau lagun ibili ziren zapatuan Laskurain Errotako iturria konpontzen

EKAINERA ARTE

Hiru iturri konponduko dituzte ekainera bitartean Antzuolan

SORGINZULON

Azken aldiz duela 20 bat urte konpondu zuten Laskurain Errotakoa

EDU MENDIBIL > ANTZUOLA

Zapatu goizean zeukaten hitzordua antzuolarrek Laskurain Errotako iturria auzolanean konpontzeko. Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeak erabaki du hiru iturri eta haien inguruneak auzolanean egokitzea. Laskurain Errotakoa gain, Aldabekoa eta Arrolakoa konponduko dituzte ekainera bitartean.

Lehen hitzordua, esan bezala, zapatuko zen: egia esan, deialdiak ez zuen arrakasta handirik izan eta lau lagun baino ez ziren agertu: Pedro Iturbe alkatea, Jose Mari Iturbe zinegotzia, Miguel Angel Lizarralde eta Jesus Odriozola Aixkirri. Beharbada ez diote behar besteko oihartzuna eman lehenbikoko deialdiri. Edozein modutan, hurrengo deialdietan herritar gehiagoren lagunza jasotzea da asmoa. Besteak beste, baserrietako bidegintza auzolanean egiteko oihitura dago Antzuolan. Era berean, Gabon inguruan, zuhaitz lan-daketa egin zuten San Joxepen eta jende ugarik hartu zuen parte orduan.

PARAJE EDERREAN

Orain dela 20 urte inguru konpondu zuten azken aldiz Laskuraingo Errotaldean dagoen iturria. Antzuolarrek Sorginzulo izenarekin ezagutzen dute inguru hori



AUZOLANEAN Irudian, ezkerretik eskumara, Pedro Iturbe alkatea, Aixkirri, Lizarralde eta Jose Mari Iturbe zinegotzia zapatuan, Sorginzulon.

DATUA

50
ITURRI

Antzuolako Toponimian 50 iturri inguru izendatuta daude. Oraingoz, horietako hiru konponduko dituze auzolanean: Laskurain Errotakoa lehengo eta gero Aldabekoa eta Arrolakoa.

Ieko Nekazaritza eta Ingurumen Batzordean dabilta. Antzuolako Toponimian 50 iturri inguru izendatuta daudela diote. Ekainera bitartean hiru konpontzea da helburua. "Ea hurrengoan jende gehiago animatzen den lanera etortzen...". Zapatu goizean giro ona izan zuten lagun. Atxurra,

palanka, aizotza eta motozerraren laguntzaz goiz osoa eman zuten lanean, ordu batak ingurura arte. Laskurain Errotako iturriraino jaisten den bidea zabaldu zuten lehenbizi eta ondoren iturri inguru txukuntzen jardun zuten. Eguerdi partean geldialdia egin zuten, hamaketakoa egiteko. Indarrak erreuperatzeko primeran eterri zitzainen. Ondoren, lanari ekin zioten berriro. Beste egun bat eman beharko dute Laskuraingo Errotaldean lanean, hasitakoa bukatzeko. Momentuz pozik dira hasitako lanarekin.

ITURRI ESTIMATUA

Garai baten asko erabiltzen duten antzuolarrek Laskurain Errotako iturria. Miguel Angel Lizarraldek gogoratzen duenez, "Antzuolan maristik zeudenean hona etorzeko oihitura zeukan eta ura

bertatik hartzen zuten. Estimua handia zioten Laskuraino urari". Aixkirrik zehazten duenez, "agua cristalina verde esaten zioten maristik hemengo urari. Eta 400 bat lagun edaten ematen zien iturriak konpontzea merezik du, ala?". Goitik igarotzen den trenbide zaharretik bidegorria egingo dute etorkizunean eta hara ibiltzen direnek eskertuko dute iturria konpontzea, zalantzarak ez.

EKAINERA ARTE

Jarraian, beste bi iturritan egingo dituzte konpontze lanak, Aldabekoa (Bergarako irteeran) eta Arrolakoa. Bietan ere antzeko lanak egingo dituzte: bidea garbitu, iturri ingurua txukundu eta ura bideratu. Udarako lanokin amaituko dute. Beraz, temperaturak gora egiten duenerako, ur freskoa eskura izango dute Antzuolan.

OBRAK > KIROLDEGIKO TABERNA

Mojategiko taberna eraikitzeko lehiaketa publikorako deia egin berri du Udalak

Futbol zelai aldera egokitzea asmoa dute eta 250 metro koadro izango ditu

Lokalaren kudeaketa kirol elkarteen esku geratuko da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak joan den egunean argitaratu zuenez, Arrasateko Udalak Mojategiko kirolegian taberna bat eta hiru bulego egokitzea lehiaketa publiko baten gaineko deialdia egin du. Udaleko Obra Sailak jakinarazi duenez, tabernak 250 metro koadro inguru izango ditu. Tabernak barra txiki bat izango du, eta horretaz gain, lokalaren kanoaldean mahaiak jarriko dituztela zehaztu dute. Futbol zelai aldera eraikiko da taberna eta, nahi duenarentzat, harmailen ondoan dagoen balkoitxora irteko aukera izango da.

Bestalde, herriko kirol elkartentzako bi bulego egokituko dituzte. Bata tamaina handiko bulego bat izango da, eta bestea, bilera gela bat. Bulego horiek futbol eta errugbi zelaiak lotzen dituen unitatearen lehenengo solairuan kokatuko dituzte.



HARMAILARA Argazkian, taberna ipini gura duten leku; harmailatxora irten ahal izango da handik.

JOSETXO ARANZABAL

Obra horiek guztiak egiteko Udalak deitu duen lehiaketa irekia da, eta beraz, interesa duen edozeinek aurkez ditzake bere proposamenak. Hori bai, obrak

burutu nahi dituen enpresak maiatz aurretik aurkeztu beharko du bere proposamena, eta Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin beharko du hori. Obretaz

arduratuko den enpresak hiru hilabeteko epea izango du dena gertu izateko. Aurrekontua, bestalde, 211.000 euro ingurura mugatu dute.

BERANDU DATOZEN OBRAK

Yolanda Perez de Arenaza Arrasateko Kirol zinegotziak adierazi duenez, Mojategiko taberna eta bulegoen obrak, hasieran, futbol zelai, errugbi zelai eta atletismo pistaren obrak amaitzearekin bat bukatzeoak ziren. Azken orduko zaitasunek, ordea, ez dute aurreikusitako proiektua erabat gauzatzen utzi.

Tabernaren irekiera arrazoi-tzerako orduan, kirol elkartentzako ezinbesteko diru iturria dela adierazi du Perez de Arenazak. Ez da ahaztu behar lehengo kirol instalazioetan ez zela tabernarik falta. Honen harira, uertzeko da, zinegotziak adierazi duen moduan, Mojategin entrenatu eta jokatzen duten klubak "taberna irekitzeo irrikan" iza-tea. Perez de Arenazak Udalaren partetik "ahalegin guztiak" egin dituztela ziurtatu du.

Tabernaren funtzionamenduari dagokionez, zinegotziak ezin izan du zehaztu, adibidez, edariak bakarrik edo janaria ere zerbitzatuko duten. Azken hori kirol elkarteen esku geratuko da obrak amaitzen direnean, eurek kudeatuko duten gunea izango baita taberna.

Mojategiko obrak bukazke daude. Errugbi zelaia, homologatu gabe dago, eta Udalak zelaia homologatzeko tramiteetan dihardu, ordura arte ezin baita partidu ofizialik jokatu.

Bazkaria eta ikastaroa eginda, orain hitzaldia, Bedoña auzoan

Bedoña Batu, Bedoñako kultura elkarrea sortu zutenetik, badabiltza ekimenak egiten auzo hartan ia eten barik. Argazkiak erakusten duen moduan, adibidez, Martxoaren 8aren harira, auzoko emakume gehienak elkartu eta bazkaria egin zuten. Horrez gain, bedoñarrrek kontatu dute oso pozik daudela nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroak izandako erantzunarekin.

Bestalde, apirilera begira beste ekitaldi bat antolatu du Bedoña Batu elkartea. Kasu horretan, Lorentzo Rojo Lontxa gasteiztarra gonbidatu dute bere bidaien gaineko hitzaldia eman dezan. Besteak beste, bizkieten munduari buelta eman dio, eta horren gainean jardungo du.



GOIENKARIA

> DEIALDIA **Txatxilipurdidi begirale bila dabil udalekuetarako**

Txatxilipurdidi Elkarteak 20.urtez antolatu dituen uztailako udalekuetara begirale gisa joan nahi duenarentzako izena emateko epea ireki du. Gaur bertan zabaldu da izen emate epea eta apirilaren 30ean amaituko da.

Txatxilipurdidi 18 urtetik gorako edozein pertsona animatzen du 2-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoekin begirale moduan aritzera.

Betiere euskaran aritzeko gertu, interesatuak bere curriculuma, argazkia, NAN-ren fotokopia eta begirale edo zuzendari tituluen kopiak bidali beharko ditu. Hau egingo, Pablo Uranga kalean elkartea duen egoitzara hurbildu eta izena ematea besterik ez du egin behar.

Euskalgintzan lanean diharduen elkarre beteranoak prentsa ohar baten bitartez adierazi duenez, "udan primeran pasa nahi baduzu, zatoz Txatxilipurdira!".

ZERBITZUAK > HILERRIA

Gaur, astelehena, hasiko dira kolunbarioak jartzen kanposantuan

Oraingoz 60 jarriko dituzte, horma-hilobietako baten hegalean

Guztiak indibidualak izango dira eta aurreko aldea granito beltzkoa izango dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Gaur, astelehena, hasiko dira errautsak gordetzeako kolunbarioak jartzen hilerrian. Zaragozako Lufuble enpresak jarriko ditu, guztira 60 eta denak indibidualak, nahiz eta hasiera baten familiarrak jartzeko aukera ere aztertu zen.

Udaleko iturriek azaldu dute-nez, hiru horma-hilobi sorta daude kapera ostean, eta hain justu, horietako baten hegalean jarriko dituzte. Kolunbariook aurreko aldea granito beltzkoa izango dute eta hildakoaren izen-abizenak edo leloa zilar koloreko txapa baten idatzita joango da. Neurriari dagokionez, 25x30x20 centimetro izango dute.

Udal iturriek gehitu dutenez, oraingoz 60 kolunbario jarriko dituzten arren, herritarren eska-



KOKALEKUA Kolunbario guztiak jarriko dituzte horma-hilobietako baten hegalean.

JOSETXO ARANTZABAL

rien arabera gehiago jartzeko aukera ere badagoela aurreratu dute, beste bi horma-hilobi sortetako hegal banatan, hain justu ere.

ESKARIEI ERANTZUN
Geroago eta herritar gehiagok hautatzen dute hildakoan erraustea, lurperatzea barik. Hori horrela, errautsok kanposantuan gor-

detzeko eskariak ere ugaritzen joan dira azken boladan eta eskarrioi erantzuteko asmoz hartu du. Udalak horma-hilobiok jartzeko erabakia.

Oraingoz 60 kolunbario jarriko dituzte. Kapera ostean dauden hiru horma-hilobietako baten hegalean jarriko dituzte. Beharra egonez gero, gehiago jarriko dituztela ere esan dute udal iturriek. Ordenantzak onartu bezain laster erabili ahalko dira.

ERABILERA ARAUTU

Kolunbarioen erabilera arautuko duten behin behineko ordenantzak eginda daudela aurreratu du Agurne Barruso alkateak. Orain, ordenantzok sakon aztertu eta gero, udalbatzak osoko bil-kuran onartu beharko ditu. Hori ahalik eta azkarren egin nahi dutela ere azpimarratu du alkateak, "kolunbarioak ipintzen bukatu eta gero, ahalik eta azkarren hasteko zerbitzua ematen", gehitu du Barrusok.

Ordenantzok jasoko dute, bestea beste: kolunbarioan errautsak gordetzeak izango duen prezioa, emango zaien erabilera, zer gauza eta nola sartu ahal izango diren, eskaerak non eta nola bideratu beharko diren eta errautsak kolunbarioan edukitzeko denbora.

ERREPIDEAK > SEGURTASUNA

Hiru auzotako autobus geltokietako arriskua ekiditeko eskatu dio Udalak Aldundiari

Ola, Elorregi eta Mekolaldeko auzotarrek errepeidea gurutzatu behar izaten dute autobus geltokira joateko

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Udalak eskaria bidali du Gipuzkoako Foru Aldundiria: Ola, Elorregi eta Mekolalde auzotako autobus geltokietako arriskua ekiditeko neurriak har ditzala, hain justu.

Izan ere, erabiltzaileek errepeidea gurutzatu behar izaten dute bai autobusa hartzeko, bai autobusetik jaitsi eta etxera edo doazen tokira joateko. Kontuan izan behar da, gainera, hiru auzootako errepeideak direla trafiko handiena dutenak, luze eta zuzenak,



ELORREGI Trafiko ugari hartzen du errepeideak eta gurutzatzea arriskutsua da. J.A.

eta autobus geltokiak daudela errepeide kontran kokatuta. Hori guztia kontuan izanik, oso arriskutsua suertatzen da erabiltzai-leendako errepeideok gurutzatzen ibili beharra.

Udaleko iturrien esanetan, Aldundiko teknikariak dagoeneko izan dira auzootan autobus geltokiok ikusten. Hala, Udaletik aurreratu dute Aldundiaren erantzunaren zain daudela.

GAZTEAK > LEHIAKETAK

'Gomendatzen dizut: merezi du!' oporretako proposamen lehiaketa abian dago

Gazte Informazio Guneak deitu du lehiaketa, ohi bezala, eta irailaren 30era arte aurkez daitezke proposamenak

M.B. > BERGARA

Gazte Informazio Bulegoaren *Gomendatzen dizut: merezi du!* proposamen lehiaketa abian da eta proposamenak irailaren 30era bitartean aurkezteko epea dago.

Aste Santuko oporren atarian ireki zuten epea, egun horietan kanpora joateko asmoa zuten gazteek lehiaketa kontuan har zezaten eta oporetatik bueltan proposamenak bidal zitzaten.

Azken batean helburua da oporetatik bueltan lagunei edo familiaoei egiten zaizkien proposamenak lehiaketa bidez egitea, modu horretan jende gehiagoren gorenana iritsi ahal izateko.

BI ADIN TARTE

Bi adin tartetan banatuta dago lehiaketa: batetik, 12 eta 17 urte artekoak, eta bestetik, 18 urte-tik gorakoak.

12-17 urte artekoen kasuan, proposamen irabazleak 300 euroko saria jasoko du ikus-entzunezko materialean. 18tik gorakoetan, berri, irabazleak 500 euro jasoko ditu ikus-entzunezko materialean, edo egonal-di bat.

Lehiaketako baldintzak eskura daitezke www.aizue.com helbidean edo Gazte Informazio Guneak kultura etxearen duen bulegoan.

ETXEBIZITZAK > KASABLANKA-HEGOA GUNEAN

Tasatutako 48 etxebizitza egingo dituzte Kurtiderixa izeneko eremuan

Etxeek 203.000 eta 254.000 euro arteko prezioa izango dute, garajea barne

Zazpi etxe kupo berezieta zozketatuko dira, eta beste guztiak kupo orokorrearan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Otsailaren 28ko osoko bilkuran onartu zuen Udalak Kurtiderixa izeneko eremuko etxebizitza tasatu tzen zozketa arautu duen bal ditzera zerrenda.

Aikia S.L. enpresak, Kasablanka-Hegoa gunean eraikiko dituen 60 etxeetatik 48 tasatutakoak izango dira, hain zuzen, 81 eta 106 metro koadro arteko azaleran duten etxebizitzak. Bestalde, prezioak 203.000 eta 254.000 euro artean egongo dira, garajea barne (ikus ondoko taula).

Alegazioak aurkezteko zaba lik dagoen epea itxi ondoren, apirileko osoko bilkuran onartuko du Udalak zerrenda behin betiko izaeraz. Ondoren, izena emateko bulegoa zabalduko dute.

LAU KUPO EZBERDIN

Kurtiderixako eremuan diren 48 etxeak lau kupo ezberdinan zozketatuko dira. Alde batetik, ezgaitasunen bat edo mugikortasun arazoak dituzten eskatzailen artean etxe bat zozketatuko da.

Beste alde batetik, hiru seme alaba edo gehiago dituzten eskatzailen artean hiru etxe zozketatuko dira. Beste hiru etxe banatuko dira Etxebideko zerrendan lau urtez edo gehiagoz izena emanda duten eskatzailen artean. Azkenik, gainontzeko 41 etxe



KURTIDERIXA Argazkian dagoen etxearen atzealdean egingo dituzte etxebizitza tasatuak.

MIREIA BIKUÑA

ak kupo orokorrearan zozketatuko dira. Gainera, lehenengo etxebizitzen zozketa Oñatin erroldatuta egotearen baldintza betetzen

dutenen artean egingo da, eta adjudikatu bariko etxeak geldituz gero, baldintza hori betetzen ez dutenen artean zozketatuko

dira. Edozelan ere, kupo bakoi tzean etxebizitza barik geratzen diren eskatzaileek, bigarren aukera izango dute kupo orokorreko zozketa.

Etxe tasatuuen azalerak eta prezioak

PISUA	M2	ETXEA	GARAJEA	PREZIOA
Beheko pisua	81,25	184.800	18.570	203.370 €
Beheko pisua	81,60	190.962	18.570	209.532 €
Beheko pisua	89,00	203.802	18.570	222.372 €
1., 2. eta 3. pisuak	93,95	209.267	18.570	227.837 €
1., 2. eta 3. pisuak	99,75	223.107	18.570	241.677 €
1., 2. eta 3. pisuak	106,35	235.572	18.570	254.142 €

Oharra: Prezioei %7ko BEZA gehiatsu behar zaie.
Iturria: Oñatiako Udalak

2006KO DIRU LAGUNTZAK

Kurtiderixako etxebizitza tasatuak eskuratu nahi dituztenek Udalak zehaztutako hainbat baldintza bete behar dituzte. Zozketa partea hartzeko ez da derrigorrezkoa Oñatin erroldatua ego tea, baina, lehentasuna edukiko dute. Baldintza ekonomikoei dagokionez, eskatzailearen 2006. urteko diru-sarrerak hartuko dira kontutan. Hain justu ere, 27.000 eta 54.165 euro artekoak

Kasablankako etxe tasatueta rako 35 eskaera jaso dira bulegoan

Kasablankako Urbia gunean egingo diren etxe tasatuak eskuratzeko Kale Barriako bulegoa zabalik egon den artean 35 lagunen eskaera jaso dituzte. Elbarrituen (etxe bat) eta familia ugarien (hiru etxe) kupoetarako ez dute eskaraerrik jaso. Aldiz, Etxebideko zerrendan lau urtez edo gehiagoz izena emanda dutenen kuporako 10 eskaera jaso dituzte. Kupo horretarako dauden hiru etxeak eskuratzenean, bigarren aukera izango dute kupo orokorrearan, beste 25 eskaerekin batera.

Datorren asteko Tokiko Gobernu Batzordean behin behineko zerrendak onartu ondoren, jende agirian jarriko dira 15 egunetan. Apirileko osoko bilkurak onartuko du behin behineko zerrenda, eta etxeen zozketa egiteko eguna.

izan behar dira. Era berean, etxebizitzaren titular kide guztien diru-sarrerak hartuko dira kontutan azken zenbatekoan egiteko. Bestalde, etxe tasatuak eskuratzeko eskaera egiten duten lagunek ezingo dute beste etxebizitzarik jabetzan eduki azken bi urteotan, Espainiako Estatuan.

KALIFIKAZIOA

Kurtiderixako etxeek eta baita garajeek Babestutako Etxebizitza kalifikazioa iraunkorra izango dute. Hortaz, hirugarren pertsona bati saldu nahi izanez gero, prezioa ezingo da behin-behineko kalifikazioan finkatutakoa baino handiagoa izan.

KIROLAK > APIRILAREN 20AN JOKATUKO DA

Aloñako igoerarako izenematea zabalik

M.B. > OÑATI
Egubakoitz Santu egunean zabaldu zen apirilaren 20an jokatuko den Aloñako igoerarako izenemate epea. Hain zuzen ere, apirilaren 11ra arte eman daiteke izena, Oñatiako turismo bulegoan, edo www.aloina.net web gunean. Parte-hartzialeak lau mailatan banatuko dira adinaren arabera: senior mutilak (18-44 urte); senior

neskak (18-39 urte); beterano mutilak (45 urtetik gora); eta beterano neskak (40 urtetik gora).

HASI ETA BUKATU, PLAZAN

Plazan hasiko da igoera 10:30ean. Handik, Arregi baserritik Lamiategira igoko dira, Urtiagainera iristeko. Aloña gainera iritsia bide berdin jarraituko dute Arantzazu kaletik plazara iristeko.



IRTEERA Argazkian, iazko igoeraren irteera unea.

GOENKARIA

> ODOL-ATERATZEA Apirilaren 11an egingo dute urteko laugarrena

Oñatioko odol emaileen taldeak antolatuta odol-ateratzea egingo dute apirilaren 11an. Donostiatik datozen mediku eta erizainak arratsaldeko seietan hasiko dira ateratzearik egiten, 20:30era.

Txantxiku Ikastolako geletan egingo den ateratzea urteko laugarrena izango da. Urtea bukatu arte, hilero, ateratze bana egingo dute, uztainen eta abuztuan izan ezik. Hala, maiatzean eta ekainean ateratzearik egongo dira.

Gurutze Mujika > Margolaria

"Naturarekin loturiko elementuak margotzea gustuko dut; gehienbat, inguruko basoak"

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Aretxabaletako Areantza auzoan bizi den Gurutze Mujika margolariak erakusketa berria zabaldukodu aste honetan Urretxuko Juan Lizarazu aretoan. Hara gerturatzenten direnak ikusiko dutenaz hitz egin digu Mujikak ondorengo elkarritzetan. Prestaketa lanekin dabilela harrapatu dugu.

**Non eta zenbat denbora eman-
go duzu Urretxun?**

Eguaztenean bertan zabalduko dut erakusketa eta apirilaren 13ra bitartean, han izango naiz. Urretxuko Juan de Lizarazu era-kusketa aretoan aurkituko nauzue. Astelehenetik egubakoitzera, 17:30etik 19:30era bitartean ikusi ahal izango da; zapatuan, gaine-ra, 12:00etatik 14:00etara ere.

Dena prest Urretxurako?

Egia esan, oraindik prestaketa lanekin nabil. Margoei markoa jarri nien joan zen astea eta aste bukaeran koadroak jartzen ibili naiz erakusketa aretoan.

**Zer ikusiko du hara joaten
denak?**

Orain arte egindako margo guztiak erakutsiko ditut han;

hoge bat, hain zuzen. Oleoz egi-na daude eta hainbat neurrieta-koak dira. Naturarekin lotutako margoak dira. Besteak beste, paisaiak, auzoak eta basoak azaltzen dira horietan. Urtaroei garra-nzia eman nahi izan diet. Hala, batzuetan paisaia elurtuak ikus daitezke; besteetan, udazkenean basoek hartzen duten kolore biziak azaltzen dira. Koloreek zeresan handia dute.

**Nondik hartzen dituzu ideiak
margotzerakoan?**

Dena izaten dut kontuan. Batzutan, inguruko paisaiak margotzen ditut. Hala, koadro batean Aretxabaletako Areantza auzoa dago; ni bizi naizen ingurunea, hain zuzen. Horrez gain, udalerriko Aozaratzua auzoa ere beste bitan azaltzen da. Gipuzkoako beste zonalde batzuetara ere joan naiz, hala nola, Ezkio-Itsasora. Asmatutakoak ere badaude erakutsi behar ditudan lanen artean.

**Zer da koadro batean islatzea
gehien gustatzen zaizuna?**

Basoak margotzea oso gustuko dut. Betidanik gustatu izan zaizkit.



Gurutze Mujika, baso paisaia bat margotzen.

MIRARI ALTUBE

**"Apirilaren 2tik 13ra,
margoak erakutsiko
ditut Urretxuko Juan de
Lizarazu aretoan"**

**"Batzutan inguruko
paisaiak margotzen
ditut. Aretxabaletako
auzoen margoak ditut"**

**Urte asko daramatzazu margo-
tzen?**

Bai, dagoeneko hamar urte baino gehiago daramatzat horretan. Garaia izaten ditut, izaten dudan denboraren araberakoak. Lasai nagoenean askotan margo-tzen duen horietakoa naiz. Bestalde, erakusketa nahiko antolatu izan ditut orain arte. Urretxu-koak bakarrik egiten dudan zortzigarren erakusketa da. Baina, aurretik, taldeka eginiko bes-te bitan parte hartu nuen.

> ARETXABAleta
**Udalak osoko bilkura
egingo du gaur
astelehena**

Osoko bilkura izango da gaur, 18:00etan, pleno aretoan. Tra-tatuko diren gaien artean, Deba errekkaren beste aldean eraikitzenten ari diren etxebizi-tza tasatuen gaineko dago. 2005ean zozketa egin zenetik, erosle batzuek atzera egin dute. Libre geratu diren etxe-ekin zer egin eztabaidatuko da.

> ARETXABAleta
**Taberna Berrik ardo
dastatzea hartuko du
eguenean**

Apirilaren 3an ardo dastatzea izango da Aretxabaletako Taberna Berrin. Dastatzaile-ek Errioxako Peciña upeltegi-ko saldak probatuko dituzte, 19:00etan. Guztira, zortzi ardo probatuko dituzte. Antolatzai-leek 30 bat lagun espero dituze. Hurrengo dastatzea apiri-laren 24an izango da.

> ESKORIATZA
**Kirol ekimenetan
izena eman daiteke
oraindik**

Eskoriatzako kiroldegia-ek antolatzen dituen kirol ekime-netan izena emateko epea zabalik dago. Eskaintza zaba-la da. Spinning; batuka, sasoian egoteko gimnasia, nagusiendako eta minusba-liatuendako gimnasia eta ige-riketa egiteko aukera izango dute eskoriatzarrek.

> ESKORIATZA
**Gaztelekuau
taillerra izango dira
datorren hilean**

Eskoriatzako gaztelekuau hainbat ekimen izango diu datozen asteetan. Domekan fimo tailerra egongo da. Apirilaren 12an, bestalde, graffi-ti tailerra izango dute eta apirilaren 26an, sukaldaritzan arituko dira. Irteerak, jolasak eta film ikuskizunak ere anto-latuko dira, besteak beste.



IAZ LEHEN ALDIZ laz ere erakusketa egin zen Ibarraundin.

GOIENKARIA

tan 12:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 20:00etara bitartean
ikus ahal izango dira.

HERRI BAZKARIA
Bestalde, aire libreko pintura
lehiaketan parte hartzen duten-
dako herri bazkaria prestatuko

dute ekimen horretako antolatzaileek. Bazkaria 14:30ean hasi-ko da.

Iaz egin zen lehen aldiz lehiaketa. Guztira, 39 artistek parte hartu zuten. Nagusien arloan, Rai-mundo Ramos eta gazteetan Sara Ramos nagusitu ziren.

**BASABE
jatetxea**

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ELGETA > LANAK

Amaitzear dituzte Salbador kaleko lehenengo faseko lanak

Asteon ikusiko dute obrako arduradunek bigarren faseko lanak noiz hasi daitezkeen, eta Salbador kaleko goiko aldean hasiko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aste Santuko oporren ostean, atzera ere lanean dihardute Salbador kalean Amaral de Sousa enpresako beharginak. Farmazia inguruan, Lasao kalean eta Torrealdearantz doan bidean dihardute. "Kalea ez dago oraindik zabalik", adierazi du Agenda 21eko Edorta Silvak. "Zerbitzuak sartzen dihardute. Arkuean egindako zuloak hormigoiarekin estali dituze eta orain asmoa da asfaltatzea".

Silvak ez du datarik zehaztu, baina adierazi du laster hasiko dituztela bigarren faseko lanak. Hau da, Salbador kaleko goiko aldean egitekoak direnak. "Asteon esango digute obrako arduradunek lanen egoera zehatz zeinden. Orduan erabakiko dugu bigarren faseko lanei hasiera emateko moduan garen edo ez".



LANAK Urtarrilean hasi zituzten Salbador kaleko lanak.

JOSETXO ARANTZABAL

BIODANTZA SAIO IREKIA
Eguenean biodantza saio irekia egingo dute Herri Eskolan. 19:15etatik 21:00etara izango da. Irakaslea Elena Subijana psikologoa da. Badira urte batzuk Elgetan biodantza saioak egiten dituztela. Saio irekia diziplina hori ezaugutu nahi dutenendako da, izena emateko konpromisorik gabe.



TXABOLA Errepide alboan txabola zegoen, eta dagoeneko bota dute.

M.A.

LEINTZ GATZAGA > AZPIEGITURA LANAK

Errepide alboko txabola bota dute lanak aurreratzeko

San Migel plaza inguruan hasi zituzten lanok, eta orain frontoiaren atzeko partean dabilta

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Eskoriatzatik Gasteizera doan errepidearen alboan, pilotaleku baino goraxeago, zegoen txabola bota zuten joan zen astean. Azpiegitura lanak egiten dabiltsan Aikia enpresako langileek bota zuten lanok aurrera egin dezaten. Txabolak jabea zeukan, baina Udalak jakinaren gainean jarri zuen, eta adostuta zeukan botatzea.

IRALEAN BUKATUTA

Saneamendu hodiak aldatu eta gasa sartzeko azpiegitura lanak martxoko lehen astean hasi

zituzten. San Migel plaza inguruan –udaletxe aurrean eta herrirako iparraldeko sarrean– hasi zituzten, eta geratu barik dabiltsa langileak eguraldiak asko lagundu ez arren. Frontoiaren atzeko parteraino irisi dira, eta errepide alboko txabola botata dagoenez bertatik egingo dute aurrera. Ezustekorik ez bada gertatzen, behintzat, irailean bukatuko dituzte, eta negurako gasa izango dute etxeen gatzagar gehienek. Hala, herriko alderdirik handiena geratuko da berrituta bigarren faseko lanok egindakoan.

ANTZUOLA > UDALBATZARRA

Torresoroako arauak onartu nahi dituzte udalbatzarrean

Eguaztenean elkartuko da udalbatza 18:00etan batzar aretoan eta gaien artean larru-ontze proiektua ere badago

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Hilero egin ohi duten moduan lehen eguaztenean udalbatzarra izango da. Apirilaren 2an izango da datorren hilabeteko hitzordua. 18:00etan udaletxeko batzar aretoan elkartuko dira zinegotziak eta alkatea.

Hainbat gai landuko dituzte eguazteneko batzarrean. Torresoroa Gizarte Etxea izango dute berbarako gai lehenengo. Asmoa da eguneko zentroaren eta zain-

tzapeko etxebizitzen araudiarri hasierako onarpena ematea. Horretarako, proposamena aurkeztuko dute. Torresoroaren era bilera antolatzea nahi dute modu horretan. Besteak beste, funtzionamendu oinarriak ipintzea, ordutegiaren gaineko, esaterako. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak gutxieneko arauak markatzan ditu era honetako zerbitzuendako, baina proposamen horren bitartez nahi da herriko beharretara egokitzea oinarriko arau horiek. Azken finean, bai eguneko zentroaren eta baita zaintzapeko etxebizitzen erabiltaileen eskubideak eta betebeharrik zehaztea da kontua.

LARRU-ONTZE PROIEKTUA

Bestelako gaietaz ere jardungo dute udalbatzarrean. Larru-ontze eta uhalgintza proiektuaz, hain

zuzen ere. Proiektuak izango dituen hiru lan faseen berri emateaz gain, aurrekontua onartzeko proposamena ere aurkeztuko dute udalbatzarrean.

Proiektua bera abian da eta ikerketa zein berreskuratze lanean dihardute. Hortaz, proposamena onartuta nahi dute nolabait ofizialtasuna eta bermea ematea proiektuan dihardutenen eta Udalaren arteko lankidetzari.

Gizarte-Ongizate sailetik etorrako beste gai bat ere landuko dute udalbatzarrean. Gehitu elkarteenetan adierazpena ipiniko dute mahai gainean eta agiri horri babesia ematea da adostu beharko dutena.

Alkateak bere dekretuen berri emango du gero eta ohikoa den moduan eskariendako eta galderetarako tartea utzik dute udalbatzarraren amaieran.

ARAMAIO > ENERGIAREN DIAGNOSTIKOA

Energia berriztagarriak sortzea beste diru iturri bat izan daiteke nekazariantzat

Energiaren gaineko diagnostikoa egiten dihardute bi elkartek energia aurreztekoko eta sortzeko bideak aztertzeko

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Udalak eskatuta, Egimen eta Solagro elkarteeek Aramaioko energiaren inguruko azterketa egiten dihardute. Herrian zenbat energia eta ze motatakoa kontsumitzen den aztertuko dute. Horren arabera helburua da, gero, energia aurreztekoko eta energia berriztagarriak erabili eta sortzeko bideak ezartzea. Iban Lizarralde Egimen elkarteko kidea da

eta zera adierazi digu: "Dinamika berri bat sortu nahi dugu; energia aurreztu ahal izateko, baina baita sortzeko ere. Diru iturri berri bat litzateke nekazariantzat, esaterako, biogasa sortzea".

Lizarraldeko azaldutakoaren arabera energiarekiko dependentzia murriztea da helburua, Aramaiok behar duen energia berak sortzea, alegia. "Hori da Euskal Herriak duen arazoetako bat; oso dependenteak gara argindarrean. Zentzu horretan, Aramaio adibide ona izan daiteke dependentzia horrekin nola bukatu ikusteko".

Bi elkarre horiek batera Euskal Herrian egiten duten horrelako lehenengo azterketa da Aramaiokoa. Orain arte, gehien bat, Frantzian eta Alemanian jardun dute lanean.

Kirola



> KARATEA
Aitor Borobia, hirugarren Espaniako Shinkyokushinkai txapelketan > 17



> PILOTA
Bergara Hiria: pilotako promesa onenak Udal Pilotaleku, biharkik > 19

> ELKARRIZKETA

Maider Unda borrokalarri aramaioarra Pekingo Joko Olinpikoak gertatzen dabil. 120 egun geratzen dira Pekingo hitzordurako; domina ekarri nahi du handik > 20



HELMUGA Eurijasari aurre eginez, Adrey Amador iritsi zen lehena Gorlako helmugara; hain justu ere, 2:24:43ko denbora behar izan zuen 90 kilometro egiteko.

JOSEKO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA > 33. GORLAKO IGOERA

Andrey Amador nagusi Gorlan, eta Unai Arantzabal laugarren

MENDIKO SARIA

Andrey Amadorrek, lasterketaz gain, Mendiko Saria ere irabazi zuen

PARTE-HARTZEA

160 ziklista irten ziren Gorlako 34. Igoeran; helmugara 94 bakarrik iritsi ziren

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Lasterketa amaieran zegoen euri-jasari aurre eginez, 94 ziklista heldu ziren Gorlako helmugara atzo. Guztien artetik indartsuena, denboraldiko aurreneko bi lasterketetan erakutsitako modura, Costa Ricako Andrey Amador izan zen, 2:24:43ko denbora eginez. Lizarte taldeko ziklistaren atzetik, denbora berdinarekin, Mikel Filgueira eta Eneko Echeverz sailkatu ziren. Unai Arantzabal bergararra, laugarren tokian helmugatu zen 57 segundoko atzerapenarekin.

Sari banaketa ekitaldian Andrey Amadorrek esan zigun modura, Deskargan apurtu zen lasterketa. "Taldekideen laguntza izan dut hasierako kilometroetan. Sortu diren ihesaldiak bertain behera uzteko lana egin dugu. Hala, nire burua ondo ikusi dut,

eta Deskargan aurrera egitea era-baki dut. Dena dela, eguraldiagaitik edo, azken kilometroak oso luzeak egin zaizkit", esan zigun Andrey Amadorrek.

EGURALDI ONA IRTEERAN

Eguraldi epela egiten zuen Bergarako plazan tropelak irteera har-

tu zuenean. Han justu ere, inoizko tropelik handiena izan zen: 160 txirrindularik hartu zuten irtee-ra Gorlako Igoeraren 34. edizioan.

Txirrindulariek Osintxu alde-ra egin zuten lehenengo, eta han-dik ibarrean gora Elorregi igo zuten. Mendiko sarirako puntuagarria zen marratik Azpiru-Ugar-

te taldeko Isaac Masegu pasa zen lehena. Gorlatik lehen aldiz pasa-tzerakoan tropela nahiko sakaba-nututa zegoen. Handik Urretxura eta Zumarragara egin zuten, jarraian Deskarga igotzeko, eta han egin zuen aurrera irabazleak. Gorla igotzen hasi zenean minu-tu bateko abantaila zuen tropela-rekiko. Errenta bukaeraraino mantendu zuen.

PROFESIONAL MAILARA IRITSI

Iaz zortzigarren tokian sailkatu zen Gorlako Igoeran; baina, aurten ziklistarik indartsuena da hiru lasterketak irabazi ditu-eta, hain zuzen, Soraluzen, Lauskizen eta Gorlano. Andrey Amador indartsu dago, eta helburu bakarra du denboraldirako: "Nire helburu bakarra profesional mailara iristea da, eta horretarako egingo dut lan denboraldiko proba guztieta".

"Nire helburu bakarra da, profesional mailara iristea; eta hori lortzeko egingo dut lan denboraldiko proba guztieta"

Andrey Amador > Irabazlea

"Ediziorik jendetxuena izan da gaurkoa, izan ere, 160 ziklistek hartu dute irteera; Lokatzakook oso pozik gaude"

Peio Garitano > Antolatzailea

ESANAK

Unai Arantzabal > Txirrindularia

"Gorlan eta Soraluzen lortutako emaitzekin oso gustura nago"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Denboraldiko lehen lasterketan, Soraluzen, bigarren tokian bukatu zuen Bidelan-Kiroagi taldeko Unai Arantzabal berigararrak. Atzo, Gorlako helmugara laugarren tokian heldu zen. Bi lasteketetan Andrey Amador izan da azkarrena. Gorlako Igoeraz, denboraldiaz eta irabazleaz egin genuen berba sari banaketa ekitaldiaren ondoren.

Hasi aurrelik, zorionak laugarren postuarengatik.

Eskrik asko.

Nola joan da lasterketa?

Nahiko ondo joan dela uste dut. Gure asmo zen bigarren itzulia arte lasai ibiltzea eta indarrak gordetzea azken igoerarako. Baino, ez genuen espero Andrey Amadorrek Deskargan ihes egitea. Bergara taldeko kide gutxi etorri garela jakinda planak aldatu ditugu.

Dena dela, beste talde batzuk lanean hasi dira Costa Ricako ziklista harrapatzeko asmoz, baina, ezin izan dute Amadorrek zuen errenta murritzua.

Eguraldiak zeresanik izan du gaurkoan?

Hasieran, Bergarako plazan, eguraldi epela egiten zuen arren, iragarpenek zioten eguraldiak okerrera egingo zuela. Deskargan geundela hasi du euria egiten. Gorla igotzen hasi garenak blai eginda geunden, eta ni behintzat, asko hoztu naiz azken metroetan. Dena den, ez dut uste era-ginik izan duenik lasterketaren emaitzan. Okerragoa izaten da eguraldi txarrarekin irten eta txarragoarekin amaitzen dugunean.

Denboraldiko hiru lasterketa jokatu dira. Nola ikusten duzu zure burua?

Ba, egia esan, nahiko ondo. Denboraldi-aurreko entrenamenduetan oso ondo ikusten nuen nire burua. Gainera, jokatutako hiru lasterketatan emaitza onak lortu ditut: Soraluzen lortutako bigarren postuarekin, eta gaurko emaitzarekin oso gustura nago. Dena den, gauzak hobetu egin daitezke, eta hori lortzeko egingo dut lan.



Unai Arantzabal Gorlan.

JOSETXO ARANTZABAL

Gorlako Igoera Andrey Amadorrek eroan du, aurreko bi lasterketen antzera. Ziklistarik indartsuena da?

Zalantza barik, bai. Izugarrizko ahalmena du, eta ondo moldatzentz da egoera guztietan: igotzen, jaisten, lautadan... Orain arteko erakutsi du bera dela indartsuena, eta tropeleko kideen artean ere hori komentatzen dugu.

"EZ genuen espero Andrey Amadorrek Deskargan ihes egingo zuenik"

"Gorla igotzen hasi garenak blai eginda geunden, eta hoztu egin naiz"

Gorlako Igoerako sailkapena

LEHENENGOAK

1. Andrey Amador	2:24:43
2. Mikel Filgueira	2:25:33
3. Eneko Echeverz	2:25:33
4. Unai Arantzabal	2:25:40
5. Alberto Morras	2:25:40
6. Aleix Fabregas	2:25:47
7. Jon Garate	2:25:47
8. Enrique Sanz	2:26:01
9. Mikel Landa	2:26:01
10. Garikoitz Bravo	2:26:01
11. Egoitz Gartzia	2:26:12
12. Mikel Bizkarra	2:26:12
13. Julen Gonzalez	2:26:36
14. Iñaki Izagirre	2:26:49
15. Enrique Varas	2:26:55
16. Iñaki Lavin	2:26:55
17. Xabier Zubeldia	2:27:13
18. Roberto Fernandez	2:27:13
19. Markel Anton	2:27:16
20. Beñat Uraiz	2:27:32
21. David Gonzalez	2:27:37
22. Iñaki Lazkano	2:27:58
23. Isaac Masegu	2:28:02
24. Gorka Izagirre	2:28:23
25. Ruben Palacios	2:28:23
26. Ricardo Gartzia	2:28:23
27. Gurutz Larrea	2:28:33
28. Eneko Lejarreta	2:28:41
29. Ander Arandia	2:28:52
30. Iñaki Gil	2:29:06
31. Rafael Perez	2:29:15
32. Unai Marin	2:29:41
33. Unai Iparragirre	2:29:41
34. Xabi Errazkin	2:31:39
35. Juan Manuel Gartzia	2:33:32
36. Martxel Elorriaga	2:34:16
37. Jose Miguel Fernandez	2:34:34
38. Arturo Ariño	2:34:34
39. Jon Aberasturi	2:34:43
40. Jon Oria	2:34:43
41. Edy Perez	2:34:51
42. Jagoba Arberas	2:34:51
43. Pablo Marcano	2:34:51
44. Ander Garmendia	2:35:20
45. Sergio Ruiz	2:35:27

DEBAGOENDARRAK

4. Unai Arantzabal	2:25:40
27. Gurutz Larrea	2:28:33
49. Asier Penabad	2:35:41
60. Hilario Cordero	2:36:23

UZARRAGAKO IGOERA > 81 KILOMETRO

Pello Bilbao nagusi Uzarragako helmugan

Gernikesa taldeko txirrindulariak 2:01:23ko denbora egin zuen; aldiz, Sumofic taldeko Xabier Arantzeta antzuolarra 25. tokian iritsi zen

M.B. > ANTZOULA

Gernikesa taldeko txirrindulari Pello Bilbaok irabazi zuen gazteen mailako Uzarragako igoera. Era berean, Euskal Herria Txapelketarako lehen proba puntuagarria zenez txapelketako liderraren mailloa jantzi zuen. Haren atzetik segundo gutxira Igor Merino sailkatu zen.

Izan ere, bi ziklistek lehia gogorra izan zuten azken unera arte. "Oñati aldean hamarreko talde bat osatu dugu, eta ondo kon-



JOSETXO ARANTZABAL

pondu gara ihesaldia egiteko. Guztioi elkarrekin iritsi gara Uzarragako lehen maldetara. Azkeneko igoeran, baina, taldea

desegiten joan da. Hala, azken metroetan ni izan naiz indartsuena", azaldu zigun bukaeran Pello Bilbaok.

sailkapena

LEHENENGOAK

1. Pello Bilbao	2:01:23
2. Igor Merino	2:01:32
3. Gorka Olaizola	2:01:40
4. Aritz Orbe	2:01:40
5. Eneko Gartzia	2:01:48
6. Juan Carlos Larrañaga	2:02:01
7. Iñaki Zuazubizkar	2:02:01
8. Aritz Agirre	2:02:01
9. Jokin Lainizarribarria	2:02:01
10. Jabi Atxa	2:02:01

> 'TROPELA.NET'
Euskadiko Itzuliaren gaineko porra bihartik aurrera

Tropela.net blogean hasiko dira egiten bihar, apirilaren 7an Legazpien hasiko den Euskadiko Itzuliko porra. Hain zuten, sei egunetan, lasterketa hasi arte egin ahal izango da porra www.tropela.net blogean.

Iaz moduan, aurten ere Euskadiko Itzuliaz gain, Gironan, Tourrean, Vueltan eta Munduko Txapelketan egin ahal izango dira porrak. 2007an 16.000 kiniela egin zituzten zaleek.

Apirlaren 7an hasiko den aurtengo Euskadiko Itzulia, eta lasterketak izango dituen sei etapetik hiru ibarreko errepideetan igoaroko dira; hain justu ere, Legazpi-Legazpi lehenengo etapa; Legazpi-Erandio bigarren etapa; eta, Gazteiz-Erandio bosgarren etapa. Azken honetan gozatuko dute gehien ibarreko zaleek, ziklistek Gorlako maldak igo beharko dituzte-eta.

KARATEA > ESPAINIAKO SHINKYOKUSHINKAI TXAPELKETA

Aitor Borobia txapelketako hirugarren

Tabaresen lana ere txukuna izan zen; hala ere, ezin izan zuen lehen kanporaketa gainditu

Guztira estatu osoko 20 karatekek hartu zuten parte Gasteizen jokatutako txapelketan

JASONE ZABALA > BERGARA

Zapatuan jokatu zen Gasteizeko Mendizorrotza kirolegian Espainiako Shinkyokushinkai Txapelketa. Guztira 20 karateka izan ziren bertan, eta Gipuzkoatik bi karateka baino ez ziren joan, biak berigararrak; lan oso ona egin zuten biek.

Aitor Borobiak pisu arinean (60-70 kilo) 3. postua lortu zuen eta beraz garaikurrarekin bueltatu zen etxera. Hau lortzeko baina lan gogorra egin behar izan zuen. Lehenengo borrokaldia gogorra izan zen, eta hiru tanda behar izan zituen Borobiak final erdietara pasatzeko. Apurketean, berriz, 11 ohol apurtu zituen, lan ona eginez. Bigarren borrokaldian irabazole geratu zenaren aurka – Ferran Gandia Valentziarra – lehiatu zen Aitor Borobia. Tanda gogorra izan zen, esperientzia handiko borrokalariaren aurka. Finalera nor pasatuko zen jakiteko 3 minutu eta 38 segundo borroka gogorrean aritu ziren, eta valentziarra pasatu zen

finalera. Borobiaren esanetan: "Lehen borrokaldia hiru tanda bat irabazi dut, lehenengo bietan berdindu ondoren azkeneko tanda bat irabazteko aukerak ikusi ditut eta halaxe izan da. Final erdietan baina, Gandia valentziarraren aurka oso zaila ikusi dut finalera pasatzea, baina pozik nago lortutakoarekin".

TABARESEK EZIN, BAINA POZIK

David Tabaresek berriz, lan txukuna egin zuen bere lehen txapelketan. Pisu ertainean (70-80 kilo) lehiatu zen eta lehen borrokaldia bera baino esperientzia gehiagoko errioxar baten aurka galdu egin zuen. Borrokaldia gogor hasi zuen baina nekearen eraginez behera egin zuen azken unean. "Lehen txapelketa izateko oso pozik nago lortutakoarekin nahiz eta kanporatua izan. Txapelketa txukuna egin dut", adierazi zigun Tabaresek. Bi karatekek Bergarakit joandako zaleei eskerrak eman nahi dizkie emandako animuengatik.



PODIUMA Aitor Borobiak hirugarren postua lortu zuen eta oso pozik amaitu zuen txapelketa.

IÑAKI LAZPIUR




BERGARAKO TALDEA Goiko argazkian Bergaratik joan ziren karateka, entrenatzaile eta epaileak.

IÑAKI LAZPIUR

SASKIBALOA > IGOERA FASEA

Igoerako ametsean beste aurrera pausu bat MUK



LAN ONA Partiduan zehar lan ona egin zuen Mallabiarrenak.

URDANETA	66-72	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Urdaneta > I. Llamosas (15), Paredes (4), Zorroza (15), Comonte (11), A. Llamosas (9), Perdigues (2), Galvan (7) eta Atutxa (3).		
MU > Gamarra (5), Zeiaga (6), Mallabiarren (7), Peña (11), Atxa (8), Kintana (4), Hernandez (4), Alartzia (14) eta Biain (13).		
Laurdeneñako emaitzak > Lehen laurdeneñako emaitza: 16-16; bigarren laurdeneñako emaitza: 33-39; hirugarren laurdeneñako emaitza: 49-59; laugarren laurdeneñako emaitza: 66-72.		

JASONE ZABALA > BERGARA

Zapatuan jokatu zuten Iñaki Merinoren mutilek igoera faseko hirugarren partidua Loiuko Urdaneta talde zailaren aurka, eta 6 puntugatik irabazi zuten: 66-72. Talde bizkaitarra etxean sendo dabilen

taldea da eta teknika onekoa, baina arrasatearrek gogor lan egin eta gero ederki gailendu zitzuten beraien etxean –goi aldean dabiltzan Leclerc eta Marfilek galdu egin zuten kantxa honetan –.

Lehen laurdeneñako emaitza: 16-16; bigarren laurdeneñako emaitza: 33-39; hirugarren laurdeneñako emaitza: 49-59; laugarren laurdeneñako emaitza: 66-72. Talde bizkaitarra etxean sendo dabilen

bihurtu zuten Merinoren mutilek. Horrela etxekek ez zuten defentsa hau apurtzen jakin izan, eta ez zitzuten ongi aukeratzen jaurtiketak. Hirugarren tartea amaineran lortu zuten abantailariak handiena MUk (51-65). Laugarren laurdeneñako emaitza: 66-72. Azken minutuetan partida kontrolpean hartu izan zuten arrasatearrek eta Alartzia ederki gidatu zuen taldea. Azken minutuetan falta pertsonal asko egon ziren, eta ondorioz jaurtiketa libre asko, batez ere arrasatearren alde: fin aritu ziren alde honetako ederki. Horrela, igoera faseko lehen postuan sendo jarraitzen dute MUkoek.

Datorren astean, igoera faseko laugarren partidua jokatuko dute Iruñeko Viajes Marfil taldearen aurka, baina oraindik ez dago zehaztuta non izango den.

GOIENKARIA



gona parpalladuna, gorria, zeta naturaleko forrarekin.

badakizuzerusain
duenmodak?

aurkituezazu



www.el-boulevard.com

Chevrolet Epicak zoriontsu egingo zaitu.
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.



EPICA

Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro dauzkazu egindako erosketa ona izan dela baieztazteko. Chevrolet Epicak honako hauek ditu: ABS, EBD, ESC, 6 aire-poltsa, antipartikuladun filtro diesela, aire girogailu automatikoa, Cruise kontrola, euriarendako eta atzealdeko aparkaleku sentsorea eta 16 pulgadako aleaziozko hagunak.

EPICA VCDi

150 ZP Diesela
5 urteko garantia
20.900 eurogatik

GEHIAGO DA.



Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

Prezio baliagarria Penintsula eta Balear uharteetarako Epica 2.0 VCDiLT bertsioarentzako (BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa (1/100 km): 6,1-9,3. CO₂ emisioa (g/km): 169-219. Bost urteko garantia: hiru urteko kontratu-garantia (hiru urte edo 100.000 kilometro; kilometroen mugak da lehen bi urteetan aplikatuko. 23/2003 Garantien Legea), eta horri bi urte gehitu behar zaizkio, Chevrolet 5 Zerbitzuak eskaintzen dizkizun kontratuaren baldintzakin.

PILOTA > BERGARA HIRIA

Bergara Hiria Txapelketa: pilotako promesak Udal Pilotalekuaren, bihartik

Bihartik aurrera 16 bikote izango dira lehian, 22 urtez azpikoetan eta nagusietan

Bi debagoiendar nagusien mailan: Mendizabal antzuolarra eta Muguruza berargarra

Partiduak martitzenero Udal Pilotalekuaren; finalak Pazkoetan jokatuko dira, maiatzaren 12an

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako eta inguruko pilotazleen gozamenerako, bihar, martitzena, Bergara Hiria pilotazpelketa hasiko da. Aurreko urteotan bezala, pilotaz promesa onenak ikusteko aukera izango dute zaleek. Ohikoa den moduan, 22 urtez azpikoetan eta nagusien partiduak izango dira Udal Pilotalekuaren Mendekoste jaiak bitartean. Bi mailetan 16 bikote lehiaztuko dira.

Honelakoetan ez dago faboritoak aurreratzerik, are gutxiago Bergarako pilotaz sailak lortu duen partaidetza ikusita. Nagusietan, zalantzari gabe, Aitor Mendizabal antzuolarrak eta Iñaki Jauregi plazentziarrak osatzen duten bikotea dugu faborito nagusia. Mendizabalek eta Jauregik DV Txapelketa irabazi zuten iaz eta Bergarara ere txapelaren bila etorriko dira. Apirilaren 22an jokatuko dute final laurdenetako partidua, Onsalon Galarraga bikotearen aurka.

MENDIZABAL FABORITOETAKO BAT

Aitor Mendizabalek zeresan ugari eman du azken hilabeteotan; Elgetako lau t'erdiko finala irabazi zuen udan eta ondoren DV Txapelketa irabazi zuen Bergaran bikote izango duen Jauregi-rekin batera. Zarautzko Aritz-batalde pilotalekuaren jokatutako finalean 22-16 irabazi zieten Reno-bales eta Garmendiari, abenduaren 23an. Bergarako pilotazaleak antzuolarra zuzenean ikusteko irrikaz daude.

Finalera iristea, edozein modutan, ez da inorentzat erreza gertatuko. Txapela eskuratu

nahi dutenek hiru partidu irabazi beharko dituzte. Finalak, Pazkoetako astelehenean jokatuko dira, maiatzaren 12an.

Beste debagoiendar bat ere izango da kantxan nagusien mailan. Ander Muguruza bergarra rakk ondo baino hobeto ezagutzen du Udal Pilotalekuaren eta txapelketa honetan esperientzia luzea du. Aurtzen Bengoetxea izango du lagun aurrelari berargarra. Hurrengo martitzenean, apirilaren 8an, Ollo eta Linzoainen aurka jokatuko dute.

Bestalde, 22 urtez azpikoetan, zailagoa da agian faboritoak aurreratzea.

LEHEN JARDUNALDIA BIHAR


Esan bezala, lehen jardunaldia bihar, martitzena, jokatuko da Udal Pilotalekuaren, 19:30ean hasita. Lehenbiziko partiduan, 22 urtez azpikoetan, Astibar-Olalde eta Narbarte-Telletxeak bikoteak izango dira aurrez aurre. Ondoren, nagusietan, Andreuk eta Iruretak Beitia-Zabala bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Bergara Hiria Pilotazpelketa leku propioa izatea lortu du azken urteotan. Profesional mailako partiduen faltan, promesakoekin konformatu beharra daukate Debagoieneko pilotazleek. Aurtengo txapelketaren 13. ekitaldia da. Bergara KE pilotaz saileko arduradunak pozik dira orain arte egindakoarekin: ikusle asko batu izan dituzte harmailetan eta pilotari bikainak ikusteko aukera egon da, gaur egun profesionalaletan lehiatzen diren hainbat pilotari tartean.



MARTITZENERO Astero bi partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuaren, 22 urtez azpikoena eta nagusiena.

GOIENKARIA



MENDIZABAL Antzuolarra dugu faboritoetako bat; Jauregi plazentziarrarekin osatuko du bikotea.

GOIENKARIA

1995ean abian jarri zutenetik maila handiko pilotariak igaro dira Bergara Hiria txapelketatik

Dagoeneko 13. ekitaldira iritsi da Bergara Hiria Pilotazpelketa. Hasierako formulario eutsiz, aurren ere gazte eta amateur mailatoko promesak ikusteko aukera izango dugu. Aurreko urteotan maila handiko pilotariak ekarri izan dituzte Bergara KEko pilotaz saileko arduradunek. Palmaresaren gainbegiratua egitea baino ez dago. Profesional mailan dabiltzan hainbat pilotari igaro dira Bergara Hiria, Martinez de Irujo edo Aritz Laskurain plazentziarra tartean. Laskurainek Bergara Hiria txapela badu, baina profesionalaletara igaro baino lehen Irujok eta Okiñenak Euskitza eta Erauskiren aurka galdu zuten. Iaz Jon Bengoetxeak eta Erroizeneak eraman zuten txapela. Aurtzen Bengoetxea eibartarrak Muguruza bergarra-rekin osatuko du bikotea. Muguruza gazte mailan jantzi du Bergara Hiria Txapelketa. Nagusien mailakoa falta zaio. Lehia gogorra izango da aurren ere.

Sarrera doan eta jardunaldi guztiaren Bergara KEren ohiko zozketa: txuleta pare bat eta ardo botilak

Bergara KEko pilotaz sailak antolatzen du Bergara Hiria, Udalaren eta Kutzaren laguntzarekin. Txapelketak 8.000 euro inguruko aurrekontua dauka eta pilotaz sailen ezinbesteko hitzordua bilakatu da urte hauetan guztiaren.

Partiduak martitzenetan izaten dira eta sarrera doakoa da. Txapelketako ohituretako bat zera da: pilotaz sailaren zozketa. Jardunaldi bakoitzean pare bat txuleta eta ardoa zozketa-tzen dituzte ikusleen artean. Zale asko batu izan dira Udal Pilotalekuaren harmailetan. Betiko moduan, txapelketak aurrera egin ahala ikusle gehiago izaten dira partiduak jarraitzen.

Ohikoa den moduan Pazkoetako astelehenean jokatuko dira finalak. Bergarako jaietan jakingo dugu nortzuk diren aurtengo txapeldunak. Bien bitartean, gozatu pilotako promesakin eta Udal Pilotalekuaren giroarekin.

ESKIA > ESPAINIAKO GUTXITUENDAKO TXAPELKETA

Iñaki Martiarenak brontzezko domina ekarri du Arrasatera

Zigarrolako ONCEko saltzailea hirugarrena izan zen 'slalom' proban, La Molinan

Ikusmen arazoak dituztenen artean hiru maila daude eta tartekoan lehiatu zen Martiarena donostiarra

EDU MENDIBIL > BERGARA
Iñaki Martiarenak hirugarren postua eskuratu zuen gutxituendako Espainiako Eske Txapelketan. Jaiotzez donostiarra izan arren, Arrasaten dozena bat urte darama Martiarenak. ONCEko kupoi saltzailea dugu Zigarrolako postuan.

Martiarenak Yolanda Zubikarai bikotekidearen laguntzaz lortu zuen brontzezko domina, *slalom* proban hirugarren postua eskuratuta. Bezperan, martitzean, seigarren postuan sailkatu zen *gigante-ko* proban. Oso pozik azaldu da Katalunian lortutako emaitzengatik eta gogor entrenatzeak sari ederra ekarri dio oraingoan.

Espaniako Txapelketa La Molinako eski estazioan, Katalunian jokatu zen aurreko astean eta Espainiako estatuko partideez gain, frantziarrak, italiaarrak eta belgikarrak izan ziren tartearen Gutxitu mailaren arabera hainbat kategoria bereizten dira honelako txapelketatan. Hain zuzen ere, ikusmen arazoak dituztenen artean hiru maila daude eta tartekoan lehiatu zen Martiarena, B-2 delakoan.

EHUN PARTAIDE
Guztira 100 partaide inguru elkartu ziren La Molinan. Gutxitu fisiokoak eta ikusmen arazoak dituzten gizon eta emakumeek hartu dute parte. Txapelketaren 20. ekitaldia izan da aurtengoa. Esan bezala, bikotearen laguntza ezinbestekoa da eta Martiarenak eta Zubikaraik bikote sendoa osatzentzutela erakutsi dute. Hirugarren aldiz hartu dute parte eta lehen aldiz eraman dute domina. Aurretik, Euskadiko Txapelketan hirugarren izan zen Martiarena, Astunen.

ZIGARROLAKO ESKIATZAILEA
Martiarenak 55 urte ditu eta, esan bezala, ONCEko kupoi saltzailea da Zigarrolan. Txapelketaren ostean, Pazko astea aprobatxatuz, Katalunia eta Frantzia aldean eskiatzen ibili da, bere gusku kirolaz gozatzen.



BIKOTEKA Iñaki Martiarena eta Yolanda Zubikarai.

GOIENKARIA

URPEKARITZA > IKASTAROA MUSAKOLAN

Urpekaritza ikastaroa egingo dute Musakolan egubakoitzetik aurrera

Ikastaroa apirilaren 4an hasiko da eta zati teoriko eta praktikoa izango du hamar egunez

Ikastaroa amaitzean parte hartzaleek urpekaritzako nazioarteko titulua lortuko dute

JASONE ZABALA > ARRASATE
Apirilaren 4an hasita eta Aukeak antolatuta, urpekaritza ikastaroa izango da Arrasateko Musakolako igerilekuaren. Ikastaroaren aurkezpena eta material banaketa apirilaren 4an bertan egingo da Kulturan 19:00etan. Ikastaroa Ksub urpekaritza elkartea emango du. Guztira bost klase teoriko izango dira, eta Musakolako igerilekuaren emanago dira. Klase praktikoei dagokienez, lau egingo dituzte, Getarian hain zuen ere. Ikastaroan parte hartzeko gutxieneko adina 12

urtekoa izango da, eta ordaindu beharrekoa, berriz, kirodegiko bazkide izanda, 350 euro, eta bazkide ez direnek 370 euro.

IKASTAROAREN OINARRIAK
Parte hartzeta nahi duten guztiak, eskaera orria bete beharko dute, apirilaren 3a baino lehen, eta honekin batera, ikastaroak balio duenaren %50a ere ordaindu beharko dute, eta beste erdia ikastaroa amaitzean. Informazio gehiago, 627 93 03 30 telefonozten bakira deitura edo www.ksub.net webgunean.




IKASTAROA Parte hartzale taldea Musakolako igerilekuaren.

KSUB

> XAKEA
Asier Etxagibel liderra da kadete mailako Euskadiko txapelketan

Eibarren jokatzen ari den Euskadiko Txapelketan, lehenengo postua lortzeko lehian Endika Dosunari elkarren arteko partida gogorra irabazi ostean Asier Etxagibel arrasatearra da Euskadiko kadete mailako txapelketako lider berria. Atzetik hiru punturekin, Oskar Diez, Hector Sanchez, Aitor Ramos eta Endika Dosuna datorz.

Bosgarren txandan, Etxagibel arrasatearrak, Oscar Diezen aurka jokatu beharko du partida lidergoa mantentzeko asmoarekin.



Asier Etxagibel. GOIENKARIA

> MENDI IRTEERA
Besaide mendi elkarteak antolatuta mendi bi mendi irteera

Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, datorren apirilaren 12 eta 13rako mendiko esku egiteko irteera egongo da. Pic Madament eta Turon de Neuville-ra joango dira. Irteera honetarako izena emateko nahi duten guztiak apirilaren 7an eta 8an 19:30etik 20:30 era aukera izango dute Besaidek daukan egoitzan edo 943773066 telefonoan. Bestalde, apirilaren 13an ere mendi irteera egongo da Mañaria, Leungane eta Dima artean. Irteera 07:30ean eta itzulera 13:30ean.

> AUKEA
Pilates ikastaroa emango dute Arrasaten, bihartik

Aukera Kirol Zerbitzuak antolatuta, pilates ikastaroa izango da Arrasaten apirilean. Hain zuzen ere, apirilaren 1ean, 3an, 8an, 10ean eta 15ean izango dira klaseak, 19:30etik 20:30era.

Interesatuek 943 77 16 77 telefono zenbakian eman dezakete izena. Kirodegiko abonatuendako izenemateak 31 euro balio du eta gainera-koeik, berriz, 41 euro ordaindu beharko dituzte.

Abuztuaren 8an Joko Olinpiko-ei hasiera emango diote Pekinen. Debagoiendarrik izango

da horretan: Maider Unda borrokalaria. Oletarrarekin izangara, zertandatzan jakiteko. Pekinen

historia egin nahi duela azaldu digu, domina bat eskuratu. Joko Olinpikoak heldu bitarte-

an, aurretik, besteak beste, Europako txapelketan lehiatuko da aramaioarra.

Maider Unda > Borrokalaria

"Historia egin nahi dut Pekingo Joko Olinpikoetan, domina bat eskuratu"

MIRIAN BITERI > OLETA

Lasai aurkitu dugu Maider Unda oletarria baserrian, ilobarekin jolasten. Joko Olinpikoengatik oraindik ez dela urduritzen hasi esan digu. Horrekin batera, diharduen entrenamenduen eta asteotan dituen txapelketengainean hitzegindugu.

Joko Olinpikoak gero eta ger-tuago daude. Dagoeneko gogor-jardungo duzu entrenatzan...

Bai, hala da. Baino, Pekinera joan aurretik, hainbat txapelketetan parte hartu behar dut oraindik. Lehen helmuga Europako txapelketa da. Gaur hasi eta hilaren 7ra arte izango da hori, Finlandian. Gaur bertan hara noa. Beraz, asteak daramatzat gogor entrenatzan eta ez dut Aste Santuko oporrik izan. Europako txapelketatik bueltan, Moskura joan behar naiz lehiatzen eta ondoren, abuztuan, Txinara.

Noiz zoaz Pekinera?

Abuztuaren 6an hartuko dut hegazkina Madrilen. Gauzak aldatzen ez badira abuztuaren 17an borrokatuko dut. Gero, turismo apur bat egiteko egunak izango ditut, etxera bueltatu aurretik.

Zein da zure helburua han?


Oraindik urrutti badago ere, argi daukat zer nahi dudan. Historia egin nahi dut, domina bat eskuratu. Ikusiko da zer domina den baina, edozelan ere, oso garrantzitsua da hori. Ez dut nahi Txinara joatea joateagatik, inongo asmorik gabe.

Zelako prestaketa egin duzu aurren?

Urtea hainbat zatitan daukat antolatuta. Lehenengoan metaketa bezala ezagutzen dena egiten dut; jarraian, transformazio deritzoten zikloa dator eta azken astean, errealizazioa dator. Txapelketa garrantzitsua daukadanean azken horrekin amaitzen dut.

Non eta zenbat entrenatzen duzu egunero?

Gehienbat etxeen, gimnasioa etxeen bertan dut-eta. Normalean, hiru bat ordu egoten naiz, korrika eta ariketak egiten. Hala ere, astean hirutan Gasteizera noa, Judizmendi kirodegira. Borrokaliendako gimnasioa daukagu han. Hortik aparte, konzentrazioak egoten direnean, tokatzen diren tokietan entrenatu beharra dago. Etxean nagoelean lanarekin tartekatu behar ditut.



Gasteizera astean hirutan badoa ere, Oletako etxeen entrenatzen du gehienbat Maider Unda borrokalaria.

Pekinera joango dena. Borroka librean lau maila bakarrik daude pisuaren arabera baina ez dabil jende asko, aukera handirik ez dagoelako: edo Espaniako txapelduna zara edo bestela ez duzu zereginik. Txapelduna izateko asko entrenatu beharra dago eta jende askok ezin du egunero entrenatu.

Eta Pekingo Joko Olinpikoen ostean, zer?

Ez dakit. Egiten dudana egiten dudala ez dut uste erretiratuko naizenik. Baino, zaila da esa-tea, gorputza ez dago beti berdin. Bi bat urte daramatzat oso onak izan direnak, lesiorik gabekoak. Baino, aurretik egon nintzen burua altxatu ezinik. Lesioak noiz iritsiko diren inoiz ez da jakiten. Guztiz horrek asko baldintzaten du.

Ibilbide osoko sasoi onenean zaude orain?

Baietz esango nuke, konfian-tza aldetik ere bai.

Zer behar da borrokalarri ona izateko?

Esperientzia izatea ezinbes-tekoa da. Indarra eduki dezakezu baina indar hori ez baduzu ondo neurten, ez dago zereginik. Denborarekin ikasten da.

Zu zeuk zenbat urte darama-tzazu mundu horretan?

Hamar urterekin hasi nintzen sambo egiten. Gero, hamalau bat nituenean, borroka librea aukeratu nuen..., eta gaur arte.

Oletan eta Otxandio aldean, hala ere, jarraitzaile asko izan dute mota horretako kirolek...

Egia da. Orain ez dago zaleta-sunik baina ni hasi nintzen urte- etan ezberdina zen kirola. Kirola egiteko gogoa zegoen. Otxandio herri txiki bat zen eta ez zegoen beste kirolik. Orain pilota dago baina, garai hartan ez zegoen ezer. Gogoratzen naiz irakasle bat etori zela erakustera eta haur guztiak hasi ginela horretan. Toki eta momentu egokia izan zen.

Amaitu aurretik, jakin izan dut webgunea jarri behar duzula martxan...

Ingurukoek eta bereziki, koi-natuak dabilta horretan. Izena www.maiderunda.com izango da. Besteak beste, bideoak, albisteak eta txapelketetan lortutako emaitzak azalduko dira han. Apirilean jarriko dugu martxan.

ENTRENAMENDUAK

"Gasteizera noanean bi mutilekin entrenatzen dut, han ez dago-eta neskarik"

ESPERIENTZIA

"Borrokalari ona izateko esperientzia izan behar da. Denborarekin ikasten da"

HASTAPENAK

"Samboko irakasle bat etorri zen aspaldi Otxandiora eta guztiok ekin genion horri"

Nolakoa da azkenaldian egun normal bat zuretako?

Ezberdina da tokiaren arabera. Etxean nagoenean 06:00etan jaikitzen naiz. Lehenik eta behin, ardiak batu eta jaten ematen diet eta jarraian gosaldu egiten dut. Goizean entrenatzeko aprobetxatzen dut, etxeen edo Gasteizen. Hori-xe da egun normal bat niretako.

tzen dena. Bazkaldu aurretik, normalean gazta egiten laguntzen diet etxekoei eta ardiei jaten ematen diet berriro. Bazkaldu ostean, ahal badut lo kuluxkada egiteko aprobetxatzen dut. Arratsaldean, entrenatzen jarraitzen dut, etxeen edo Gasteizen. Hori-xe da egun normal bat niretako.

Gasteizera joaten zarenean bakarrik entrenatzen duzu edo beste batzuekin aritzen zara?

Entrenatzalea daukat ondoan eta horrez gain, bi mutilekin entrenatzen dut. Gasteizen ez dago neskarik. Bilbon neska bat dago baina urrutti geratzen da. Espaniatik neska bakarra naiz

Ford Espainiak 121 gr/km gaineko CO₂ igorpenak dituzten ibilgailuetan matrikulazio zergak bere gain hartzen ditu. Eskaintza honek hile bukaera arteko baliogarritasuna dauka. Eskaintza hau ez da baliogarria langile eta flotentzat. Focus gama, bataz besteko kontsumoa: 4,3-7,1 l/100 km. CO₂ igorpenak: 114-169 g/km.

Ford Focus Berria



%0
Matrikulazio
zerga

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAÓN

Feel the difference



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako
telefono berria eta bakarra**

943 25 05 05

Goitb
Goiena Telebista

ASTELEHENeko
Goienkaria

Goienkaria

FM 107.7 ARRASATE
IRRATIA

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria



> BERTSOLARITZA

Joseba Lasagabasterrek lortu du txapela Oñatiko txapelketan > **24**

> SAMU CREW

'Tu si que vales' telebista saioko finalean izan ziren barikuan > **24**

> KANTARI

Oraingo astean GOITBn emitituko diren taldeetako kantariak > **26**



AUKERAN 10. URTEURRENA DANTZA TALDEAK Urteurrena ospatzeko ikuskizun berezia eskaini zuten Victoria Eugenia antzokian. Erdian, Edu Muruamendaraz, zapatuko emanaldian.

IKER AZURMENDI

Hamar urtetako lanaren emaitza erakutsi zuen Aukeran taldeak

Victoria Eugenia antzokia jendez beteta eta banaka batzuk sarrera lortu ezinda

Safronkine, Murillo eta Agirretxe dantzariak izan zituzten gonbidatu gisa bezala

ARRITXU BARRUSO > DONOSTIA
Edu Muruamendaraz bergarra-rak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak 10 urte bete ditu aurten. Lanean jardundakoa hamarkada hau ospatzeko *Aukeran, 10 urte* ikuskizuna aurkeztu zuten zapatuan Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Aukeran konpainiak azken hamar urteotan egindako lana ipini zuen taula gainean. Ohikoa duten maila, seriotasuna eta originaltasuna erakutsi zuten, oraingoan ere; dantza tradizio-naletik abiatuta, baleta eta dantza garaikidea tartekatuz. Arro-

pa ikusgarriak erakutsi zituzten, eta argiekin egindako lana ere deigarria izan zen. Argi-itzailekin lortutako efektuak ere poli-tak izan ziren oso. Aukeran dantza taldeak hiru ikuskizun aurkeztu ditu bere ibilbidean: *Sutargi* (2001), *Izena duen guztia omen da* (2003) eta *Bideak* (2006). 10. urteurrena ospatzeko landutako azken ikuskizun honeitan, aurreko hiru lanetako zatiatik abiatuta taldearen errepasoak egin dute. Zati batzuk bere horretan mantendu dituzte, eta beste batzuk, zaharrenak, eraldu egin dituzte.

ANTZOKIA BETETA

Victoria Eugenia antzokia jendez beteta zegoen, eta banaka batzuk sarrerak lortu ezinda geratu ziren. Sekulako arrakasta, beraz. Ikusleek, hasieratik, gogotsu txalotu zituzten dantza saioak. Perkusio kaxez lagunduta, arin-arin eta fandango modernoak dantzatzen ari zirela festa giroa zabaldu zen Victoria Eugenia antzokian. Momentu hunkigarriak ere izan ziren. Taldeko abeslariaren ahots goxoak lagunduta, eta argi-itzailekin jolastuz dantzatutako aurreskuak zirrata eragin zuen ikusleengen.

Gonbidatuak ere izan zituzten zapatuko ikuskizunean eta sekulako maila erakutsi zuten. Iker Murillok, Zuricheko Baleteko dantzari bakarlariak, eta Vitali Safronkinek bi saio motz egin zituzten. Teknika altua eta heldutasun handia erakutsi zuten bi dantzari horiek. Ikusleen txalo zaparrada jaso zuten bi saioetan ere. Jon Ibarretxe izan zen hirugarren gonbidatua, Angel Corella konpainiako dantzaria.

Ikuskizuna amaitzerakoan Aukeran taldekoek lora sorta bana eman zieten gonbidatuei.

OÑATIKO BERTSO TXAPELKETA > FINALA

Joseba Lasagabaster txapeldun eta Ander Lizarralde publikoaren gustukoen

Lasagabasterrek eta Lizarraldek lortu zuten finalaren azken txanparako txartela

Irabazleak agur dotorea abestu zuen lagun eta familiakoei eskerrak emanez

EGOITZ AIZPURA > OÑATI

Mirari Sagarzazuk jardun zuen Oñatiko Bertso Txapelketaren finalean gai-jartziale lanetan. Sagarzazuren aurkezpenen ostean, agurra abestu zituzten sei finalistek. Argi geratu zen, orduan, zein asmorekin zihoa bakoitzarik finalera.

Bertso puntuagarriei dagokienez, zortzik nagusian kantatu zituzten lehenengo hiru bertsoak. Ariketa honetan Joseba Lasagabaster aritu zen egokien; arrazoi borobilak kantatzat bat bestearren atzetik. Ondoren, zortziko txikian beste hiruna bertso kantatu zituzten ofiziotan. Ander Lizarralde eta Joseba Lasagabasterren saioek eragin zituzten entzuleen algara eta txalo gehien.

Bakarkako lanean, Beñat Alberdi eta Joseba Igartuak ere lan ona egin zuten. Finaleko azken txanparako txartela, bai-



TXAPELDUNA Daniel Agirrek, Oñatiko Bertso eskolako sortzaileak, ipini zion txapela Lasagabasterri.

J.A.

na, Joseba Lasagabaster eta Ander Lizarraldek lortu zuten, beste lau bertsolariak txapela lortzeko aukera barik utzita. Buruz burukoan, lehenik, ham-

rreko txikian hiruna bertso kantatu beharra izan zuten. Saio polita egin zuten bien artean, humore finari leku einez. Publikoaren epaia izan zen jakiten

lehena. Ander Lizarralde izan zen bertaratutakoen gustukoa. Epaimahaiak, baina, Joseba Lasagabasterri eman zion txapela. Daniel Agirre, bertso eskolako sortzaile eta bultzatzaileak jantzi zion txapela. Lasagabasterrek familiakoak, bertso eskolakoak eta publikoa eskertu zituen agur dotore batekin.

Mireia Gabilondo > Zuzendaria eta aktorea

"Ziur nago antzerkia ez dela sekula desagertuko"

GOIENKARIA > BERGARA

Mireia Gabilondo berigararrak, Lurdes Bañuelosekin batera idatzitako *Emakumeak izarapean* antzezlanak VIII. Donostia Antzerki Saria irabazi du. Ikuskizuna martxoaren 27an taularatu zuten, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Nazioarteko Antzerkiaren Egunean.

Zer suposatzen du sari honek zuretako?

Poza, poz handia. Beti esan izan dut Donostia Antzerki Saria sari benetan polita dela. Lurdes Bañuelos eta biok antzezlanida idazten genbiltzaneez genekeen lana taularatzea lortuko genuenik ere. Beraz, poz handia eman digu.

Zergatik uste duzu eman diotela saria *Emakumeak izarapean* antzezlanari?

Hori epaimahaiari galdu beharko diozue (barre). Ba, ez dakit. Baina, egia dena da egin genituen emanaldiek oso erantzun ona izan zutela. Nik uste dut, asko eta asko, identifikatutu sentitzen zirela taula gainean ikusiten zutenarekin. Bestetik, uste dut antzezlanera aurrera pausu

"Antzezlanida idazten ariginenen ez genekien lana taularatzea lortuko genuenik ere"

"Antzezlanida aurrera pausu garantzitsu bat izan daiteke sexuaren normalizazioan"

garrantzitsu bat izan daitekeela sexuaren normalizazioan.

Nazioarteko Antzerkiaren egunenau tauclaratu zenuten lana berriz. Nola ikusten duzu gaur egun antzerkia?

Beti krisialdian bizi garela esaten da. Nik uste, urte batzuk beste batzuk baino hobea direla, eta gora behera asko izaten direla. Baina, uste dut antzerkia ez dela sekula desagertuko. Hori da, behintzat, pentsatu nahi dudana.

Eta euskal antzerkia?

Ba, gauza bera, baina, murriztuago. Euskararekin arlo guztietan gertatzen den gauza bera geratzen da antzerkian. Euskararen normalizazioaren bidean gaude eta gauza asko lehenengo aldiz egiten ari gara. Hori da jarraitu behar dugun bidea.



Mireia Gabilondo.

GOIENKARIA

TELEBISTA > BERGARARRAK 'TU SI QUE VALES' SAIANOAN

Irabazi ez arren, gustura gelditu dira Samu Crew taldekoak egindako lanarekin

Break-dance taldeak sekulako indarra eta maila erakutsi zuen taula gainean

Taldea indartzea eta ahalik eta ikuskizun gehien ematea da orain taldearen helburua

ARRITXU BARRUSO > BERGARA
Samu Crew break-dance taldea Telecincoko *Tu si que vales* telebista saioko finalean izan zen pasa den egubakoitzean. Hiru berigarar daude talde horretan: Angel eta David Alcaraz anaiak eta Amaia Bernal. Bergararrekin batera, Oneretako Jose Mari eta Imanol Peso eta Irungo Yerandi Macias daude taldean.

Irabazi ez arren, pozik daude Samu Crew taldekoak finalean egindako lanarekin. Adierazi digute, gainera, bazekitela oso zaila zela txapela lortzea: "Bagenkien irabaztea oso zaila izango zela. Gure maila erakutsi eta ahalik eta ondoen pasatzera joanгин finalera". Eta horixe da, hain zuzen ere, egin zutena. Izan ere, garaile izan ez arren, sekulako maila erakutsi zuen break-dance talde honek. Epaimahaia ere zoriondu egin zituen egindako lanagatik. Epaimahaian zeuden Los Morancos anaiak ere asko gustatu zitzaien Samu Crew taldearen ikuskizuna. "Saio bukatu ostean esan ziguten, euren ustez, finaleko hiru talde onenen artean geundela eta hori entzutea ohore bat izan zen", azaldu du David Alcarezek.

MOZORRO ETA GUZTI
Mamu-arrapatzalez (*Cazafantasmas*) mozorrotuta irten ziren taula gainera Samu Crew taldekoak. Arropak eurak erosi zituzten arren saioko makillatzaileek margotu zizkieten aurpegiak: "Ez genekien eurak margotuko gin-



SAMU CREW TALDEA Pozik itzuli dira *Tu si que vales* telebista saioko finaletik, adituek maila oso ona dutela esan dietelako.

s.c.

ESANAK

"Finaleko hiru talde onenen artean geundela esan ziguten eta hori entzutea ohore bat da guretzat"

David Alcaraz > Samu Crew

"Dantza munduan aditua den jendeak esan digu balio dugula eta aurrera jarraitzeko; hori da garrantzitsuena"

Angel Alcaraz > Samu Crew


tuztenik eta egia esan lan bikaina egin zuten. Ikuskizunak asko irabazi zuen makillatzaileek egindako lanarekin" azaldu dute.

Jende asko ezagutu dute eta ikasi ere, asko ikasi dute, baina neketsua izan dela adierazi digute. 14 orduz egon ziren euren txandaren zain eta hori gogorra izan zela azaldu dute: "14 ordu egon ginen entseatu eta entseatu eta bukaerarako, beti ondo egiten genituen gauzak ere txarto irteten hasi ziren. Urduri samar jarri ginen orduan, baina, zorionez taula gainean dena oso ondo joan zen".

ADITUEN BABESA

Familiartekoen eta lagunen zorionak jaso dituzten arren, saioan bertan ezagututako jendeak esandakoari eman diote garrantzia Samu Crew taldekoek. "Dantza munduan aditua den jendeak esan digu balio dugula eta aurrera jarraitzeko. Hori da garrantzitsuena, guraso eta lagunek beti dituzte hitz politak guretako, baina azken finean adituen iritzia da importa duena".

Saioa bukatu den arren, lanean gogor jarraituko dute eta taldea indartzea da orain euren helburua. Dagoeneko badihardute zenbait ikuskizun lotu nahian. Bergarako Udalaren erantzunaren zain daude Mendekoste jaientan dantza egin ahal izateko. Bergarakoak izanik herrian dantza egiteko irrikan daudela esan digute.




SAMU CREW Imanol Peso, Samu Crew taldeko kidea, Angel Llacerrekin.

s.c.



SAMU CREW Angel Alcaraz 'pio-pio' abesti famatuaren egilearekin.

s.c.



SAMU CREW Amaia Bernal, Jorge Cadaval, Los Morancos anaietako batekin.

s.c.



Kantari Debagoienean



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ekaitz Cabero, Maitane Aguado eta Mireia Cabezas. **HERRIA** > Aretxabaleta. **ADINA** > 11 eta 12 urte.
ABESTIA > Lo egin.



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ainara Merino, Maria Mendizabal eta Olaia Garro. **HERRIA** > Aretxabaleta. **ADINA** > 9 urte.
ABESTIA > Eskutitza.



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ander Giletto, Mikel Crespo, Oier Aizpurua eta Xabier Umerez. **HERRIA** > Aretxabaleta. **ADINA** > 11 urte.
ABESTIA > Goizero.



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Aroa Nuñez, Laura Fabiam, Laura Unanue eta Nahikari Custodio. **HERRIA** > Aretxabaleta.
ADINA > 10 urte. **ABESTIA** > Amets.



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Jaione Mendikute, Maddi Garro, Nagore Barrena eta Naiara Zubizarreta. **HERRIA** > Aretxabaleta.
ADINA > 11 urte. **ABESTIA** > Zergaitik ez.



NOIZ > Apirilaren2an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Maider Orobengoa eta Nerea Elortza; Beñat Ganboa eta Jon Iriondo ez daude argazkian. **HERRIA** > Aretxabaleta. **ADINA** > 10 urte. **ABESTIA** > Lau teilatu.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ane Arrieta, Arane Zubia, Leire Astiazaran eta Maite Carriet. **HERRIA** > Eskoriatza. **ADINA** > 8 urte.
ABESTIA > Maite zaitut.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Iراتi Armendariz, Leixuri Herruzo, Maier Mediavilla eta Marta Gartzia. **HERRIA** > Eskoriatza.
ADINA > 11 urte. **ABESTIA** > Laztana.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Henar Valor, Itziar Unanue eta Olatz Iriarte. **HERRIA** > Eskoriatza.
ADINA > 8 urte. **ABESTIA** > Iñaki.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Andrea Perez, Goiatz Estevez, Maialen Gay eta Maider Lezeta. **HERRIA** > Eskoriatza. **ADINA** > 10 urte.
ABESTIA > Atalaia.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Auritz Iñurrieta, Edurne Badillo eta Maider Uribe. **HERRIA** > Eskoriatza. **ADINA** > 11 urte.
ABESTIA > Festarik festa.



NOIZ > Apirilaren4an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ander Vallina, Ander Zubia, Jon Lucero eta Manex Lortzabal. **HERRIA** > Eskoriatza.
ADINA > 11 eta 12 urte. **ABESTIA** > Sarri, sarri.

Saioen emanaldiak GOITBn

ASTE BUKAERA...

Pello Zabalarekin



Ezkontzarik ospatzen ez duenanean Pello Zabalak organoa jotzen du Arantzazuko elizan ospatzen diren ezkontza elizkizunetan.

JOSETXO ARANTZABAL

"Zapatuetako ezkontzak ospatzen ditut, edo bestela, organoa jotzen dut"

Arantzazun ospatzen diren ezkontzen arduraduna da Pello Zabala; 2008an 27 bikote ezkonduko dira

Seminarioan ikasitako moduan, liburuak zutik irakurtzen ditu; hain zuzen, hilero zazpi liburu irakur ditzake

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU

Pello Zabala (Amezketa, 1943) eguraldi iragarlea eta musika zalea da, besteak beste. Eliza berria egiten ari zirela iritsi zen Arantzazura apaiz ikasketak egingera, hamar urte zituela. "1953. urtean elizako bi dorre txikiak eraikitzen zeuden, eta dorre handia hasita zegoen", gogoratu digu Pello Zabalak. Asko aldatu da Arantzazu ordutik: "Apaiz ikasketak egin nituen Seminarioa eraitsi egin zuten, eta pilotaleku eta Seminario berriak egin zituzten. Baina, Gaudiaga Topagunea egiteko frontoia eta Seminarioa bota egin zituzten".

Aldaketa asko egon arren, 55 urte bete ditu Pello Zabalak Arantzazun.

Frantziskotarrekin dituen betebeharrekin batera, eguraldi gizona ere bada. Hala, azken egunotako euriteengatik telefono dei asko jaso ditu. "Eguraldi kaskarra egiten duen bakotze, eurarengatik, elurrarengatik edo haisearengatik, dei asko jasotzen ditut; hain zuzen, eguraldiaren iragarpena emateko edo zenbat litro euri bota duen ezagutzeko", dio Pello Zabalak.

Izan ere, eguraldiaren gaine-ko datuak jasotzen ditu Zabalak 1966. urtetik. "42. urtea da datuak jasotzen nabilela. Eta gezurra badirudi ere, bataz bestekoak egiteko oso baliagarriak dira Arantzazun ditugun datuak. Ikerketak egiteko ere erabili dituzte". Euskalmet Zerbitzuak ere hainbat behatoki ditu datuak biltze-ko, baina azken sei urteotako datuak dituzte bakarrik.

EZKONTZEN ARDURADUN

Egunero jardunaz gain, aste bukaeran bestelako lan batzuk egiten ditu Pello Zabalak, Arantzazu ospatzen diren ezkontzen arduraduna da-eta. "Gure elizan ezkondu gura duten bikoteekin egiten dut berba, data aukeratu eta elizkizuna gertatzen lagunten diet", azaldu digu. "Hainbat zapatuetan, ezkontzak ospatzen ditut, edo bestela, ezkontzeta-

organoa jotzen dut". Azken urteotan elizako ezkontza kopuruak behera egin duen arren, 2008an 27 bikote ezkonduko dira Arantzazun. "Azken urteotako kopururik txikiiena da. Duela bi urte, 42 bikote ezkondu ziren. Dena dela, datorren urterako 11 biko-terendako datak hartuta ditugu, dagoeneko".

Zapatuetan ezkontzarik ez dagoenean familiarekin egiteko aprobetxatzen du. "Normalean ama bisitatzen joaten naiz, 88 urte ditu-eta. Aste Santuan nirekin egon da Arantzazuko elizkizunetan parte hartzen", azaldu digu. Era berean, lagunekin egiteko planak zapatuetan egiten ditu, domeketan, elizkizun ugari dituzte-eta Arantzazun, 07:30etik 20:30era.

ZUTIK IRAKURTZEN DU

Denbora izaten duenean irakurtzea gustatzen zaio. "Liburu asko irakurri ditut, baina beti zutik irakurtzen dut, ibiltzen. Halaxe ikasi nuen Seminarioan", diosku. Hilabete batean zortzi liburu irakur ditzakeela esan digu." Musika asko entzun arren, liburu askoz gehiago irakurri ditut".

"Musika zalea naiz, eta 5.000 CD ditut sailkatuta Arantzazun, gehienak klasikoak"

Klasikoak gaur izeneko irratsaioa zuzendu zuen hogei urtez Euskadi Irratian. "Hasieran biniloko diskoak erabiltzen genituen, eta ondoren CDak etorri ziren", esan digu Pello Zabalak. Musika klasikoa oso gustuko du, eta 5.000 CD ditu sailkatuta Arantzazun. "Johann Sebastian Bachen, Wolfgang Amadeus Mozart eta Ludwig van Beethovenen disko guztia ditut, bakoitzetik 100en bat CD. Musika klasikoa atsegin duenak ezinbestean izan beharreko egileak dira. Gainera, Igor Stravinskyk egiten zuen musika ere asko gustatzen zait", diosku Pello Zabalak. Musika klasikoaz gain polifonia eta Erdi Aroko musika atsegin ditu. Musikan espezialdutako aldizkariak erosten ditu oraindik. "Madrilen egiten duten *Diverdi* izeneko aldizkarian musika bitxia aurkitu izan dut". Autoan entzuten du musika, klasikoaz gain, Txile, Mazedonia, Mexiko, Errusia eta Turkiako doinuak, besteak beste.

gazte zerbitzuak

UDALEKUAK

> 7-13 urte. Foru Aldundiak antolatutako udalekuak, 7 edo 10 eguneko txandak, aisialdia eta kirol ekintzak, bertsolaritza, frantzes eta inglesa,... Zozketan izena emateko epea: martxoaren 31tik apirilaren 9ra Gazte Informazio bulegoetan.

> Udatxoko. Udarako antolatuta dauden udaleku, auzolandegi eta bes-telako ekintza guztiek bildu ditugu www.gipuzkoagazteria.net/uda web-gunean eta berauetan begirale bezala lan egiteko deialdiak ere bai.

BEKAK

> Koldo Mitxelena. Erreenteriako Udala. Euskal kulturari buruzko iker-keta egiteko beka. Banakakoei edo hel-buru horrekin sortutako taldeei zuzen-duta. Epea: apirilak 18.

> Hizkuntzak. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (MEC). Hainbat hiz-kuntza ikasi ahal izateko ikasleentza-ko bekak. Beka bakoitzak bere epea dauka. Informazio gehiago: <http://tinyurl.com/yolcu7>

LANA

> Nekazal auzoen eta ingurumene-koteknikaria. Oñatiako Udala. Epea: apri-lak 16.

> Kontabilitate eta zuzenbideko tek-nikaria. Amorebieta Etxanoko Kultura eta Euskara Zerbitzua. Epea: apri-lak 10.

> Hainbat plaza. Arabako Foru Aldundiak. Administratzio orokorreko teknikaria, ekonomia eta enpresa zien-tzietan lizenziaduna, nekazaritzako teknikaria, zuzenbidean lizenziatura, aukera berdintasuna, arkitektua, museoak, itzulpena, administraria, bibliotekonomia, landazaintza, Epea: apirilak 14.

IKASTAROAK

> Adineko Pertsonen Ongizatea. Hez-kide Eskola. Estiramenduen bidez adi-neko pertsonen ongizatea hobetzeko tailerra. Apirilaren 17,18 eta 19an. Epea: apirilak 4.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinatik.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxe salgai Sagasti auzoan. 89 m². Hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, sukaldia, egongela eta trasteleku. Berogailua eta igogailua. Garajea barne. 687 11 07 21.

Aretxabaleta. Erdigunean tei-laturepeko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzia. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. Presazko da sal-tezea. 659 64 67 38.

Arrasate. 117 metro koadroko etxebizitza salgai. Zerrajera. Lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Garaje eta guzi. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

Arrasate. 47 metro koadroko apartamentua salgai. Erdialdean. Berritua eta jantzia. Argitsua eta material ederrekin egina. 635 70 88 88.

Arrasate. 61 m²-ko etxebizitza berriñaga San Andresen. Bi logela, sukaldia, egongela, komun bat eta terraza. 12 m²-ko sotoa ere badauka. Igogailua berriñaga. Sartzeak prest. 256.050 euro. 669 14 67 92.

Arrasate. Erdialdean 94 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldia, bi komuneta eta egongela. Igogailua eta berogailua. Garaje aukera. Eraikin berria. 686 24 97 48.

Arrasate. Maalako Errabalaren 72 m²-ko etxebizitza salgai. 943 77 03 68 edo 628 35 21 61.

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 m². Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteleku. Berritua. 200.000 euro. 943 27 71 50.

Bergara. 75 m²-ko etxebizitza salgai. 216.000 euro. Hiru logela, sukaldia, sala, komuna eta gara-ja eta bizerreta. Arropa esegitzeko lekuak. Bi aparkaleku. Ganbara, terrazarekin. 943 76 07 50.

Bergara. Aranerrek eta etxebizi-tza salgai. 75 m², guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, bi bainu-gela, sukaldia, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

Bergara. Barrenkalea kalean. 40 m². Bi logela, komuna eta sukaldia amerikarra. 627 90 68 91 edo 627 53 55 54.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean 97 m²-ko etxea salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Eguzkitsua eta bista oso onak. Garajea eta trasteleku. 655 71 03 23.

Elgeta. 105 m². Laugarren solai-rua. Lau logela, bi komun, sukaldia, egongela, trasteleku eta ganbara. Dena jantzia. Igogailua dauka. 657 77 69 71 edo 669 66 82 24.

Elgeta. Etxebizitza ia berria salgai. Hiru logela, sukaldia, egon-gela-jangela eta bi bainugela. 205.000 euro. 664 79 64 97.

Oñati. 63 m²-ko apartamentua salgai. Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukaldengonela, bi logela eta komuna. Sukaldetza guztiz jantzia, kalefakzioa, alarma... Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 655 77 97 74.

Oñati. 75 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, sukaldia.

617 88 20 93.

102. EROSI

Arrasate.

60 m²-ko etxebizitza salgai Grupo San Juan auzoan. Bi logela, egongela, komuna eta sukaldia. Berogailua, igogailua, sotoa eta ganbara. Berritua eta bizerreta sartzeko moduan. Deitu 600 90 76 73 edo 635 71 93 00 telefono zenbakietara.

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje salgai Loramendin. 10.000 euro. Deitu 656 77 64 64 telefonora.

Arrasate. Garaje salgai Jauregi-barriona kalean. 943 08 29 81.

Bergara. 37 metro koadroko garaje salgai Zubiaurren. Deitu 606 65 97 82 zenbakira.

Garaje-trasteleku txikia saldu edo alokatzen da Bergarako Zurradero kalean. 5.500 euro. 5.80x1.80. Motorra gordetzeko egokia. Deitu 678 43 31 07 telefono zenbakiera.

202. ERRENTAN EMAN

Bergara. 100 metro koadroko etxebizitza Bolun. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi komun, sukaldetza-jangela, egongela, sarrera eta trasteleku. 607 41 14 44.

Chiclana. Costa Sancti Petri (Cádiz). Apartamentua errantzen La Barrosa hondartzatik gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

203. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garaje itxia emanen dut errantzen. Andramari auzunean dago. 943 77 12 81.

Arrasate. Garajea errantzen. Iri-ka eta trastelekuarekin. 686 62 25 75 edo 965 71 06 55.

Oñati. Bidebarrieta kalean garaje bat alokatzen da. Deitu 695 75 85 26 telefonora.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. 25 metro koadro inguru-ko garajea hartuko nuke errantzen. 656 71 96 96.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU GUERRA. GAINERAKOAK, 22 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENeko GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERU 30 EURO (+BEZ).

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Opel Vectra autoa salgai. Ego- era onean. 2.400 euro, nego-ziatzeko prest. 658 73 40 21.

Yamaha Majestic Limited 125 motor beltza salgai. Ekainera arte Yamaha garantziarekin. Kilo-metro gutxi dauzka. Beti gara-jean. 2.000 euro. 619 52 75 87.

8/ DENETARIK

801. SALDU

'Carcher'-a salgai. Aurrealdeak garbitzeko makinada. HD1050B modeloa, pistola-rekin. Egoera bikainean dago. 616 35 99 75 edo 943 76 33 01.

Apunteak. Administrazio lagun-tzaile lanposturako oposizioak prestatzeko apunteak salgai. Gai guztiek eta testak egiteko CDA. 2008koak. 636 05 36 18.

Epiphone SG guitarra elektrikoa salgai, maleta, gorroarekin eta Marshall amplifikadorearekin. Dena 250 euro. 692 13 48 56.

Ilekoplantxak salgai. Gama Ceramic Ion Technology. Egoera onean. 50 euro. 645 72 58 41.

Konpresoreak salgai. Sagola mar-kakoa. Pistola ekologikorekin. Oso egoera onean. 616 35 99 75 edo 943 76 33 01.

Pander berri-berria salgai. Oso-oso merke. 943 77 04 21.

Tabernako tresneria. Hamar bandejak labea, 36 diametro-dun xaflikako ebakitzale industriala. Fagor garbigailua eta mahai eta aulkia saltzen ditut. 649 84 67 09.

Txakurumeak Ispanier arra-zako txakurumeak salgai. 664 46 06 45.

Zigiluak. 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. 657109078.

501. JASO

501. JASO

Arrasate. Batxilergoko mate-matikako eskola partikularrak harta gura ditut. 645 72 25 41.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Escort familiarra salgai. 11 urte ditu. 212.000 kilometro. Motorra egaera onean dago. Sal-neurri oso merkeak: 350 euro. 606 64 19 09.

Bergara. Emakumea gertu umek zaindu eta etxeko lanak egiteko. Roxana. 697 20 00 86.

Bergara edo Arrasate. Emaku-me gertu pertsona nagusiak egauez edo gaez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dazukat. 686 99 51 41.

Bergara. Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umek zaintzeko. 606 64 16 09.

Bergara. Emakume esperien-tziaduna gertu pertsona eda-detuk zaintzeko. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

Bergara. Emakume gaztea ger-tu haurretak edo pertsona nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarreko. Paperak dazukat. Mila. 688 64 11 34.

Honda CRV. 1998ko. 128 ZP, bost ate. Oso egoera onean. 6.500 euro. 665 75 17 67.

Mercedes Vito. 2001eko. 150.000 km, ohea, hozkailua, gortinak... 12.000 euro. Deitu 626 89 15 94 telefonora.

802. EROSI

Eskusoinua erosio nuke: txikia, batoi-duna eta kromatikoa. 943 76 09 28.

804. HARTU

Hozkailu zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

806. GALDU

Bergara. Ezkontako urre koloreko eraztuna galdu nuen. Gizo-nezko izena eta 99-09-25 data edo idatzita. 627 64 91 58.

Betaurreko graduatuak galdu nituen martxoaren erdialdean Arrasateko Urbe auzoan. Estu-te batzen barruan. Deitu 943 77 08 19 zenbakira.

Jantzi polarra galdu nuen

astea GOITBn

Astelehena, 31




> Gorlako igoera eta Karatea 'Harmailatik'-en 21:15

Aste buruan egingo den Gorlako igoera edota shink-yokushinkai karate txapelketak utzitakoak ekarriko ditu Xabier Urtzelaik *Harmailatik* sainora.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 San Adriango kondairak.
16:15 Gabiria rallya.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Teknopolis.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 Gertutik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Hamaillatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 1



> 'Berbaire' saioan mahai politikoaren txanda 21:47

Ander Rodriguez, Pello Urizar, Andoni Gartzia eta Oxel Erostarbe izango dira Goiena Telebistako platoan politika gaiez beretan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bividunak: Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Gertutik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Euskal artzainak.
22:15 Ur eta Iur.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 2



> 'Euskal Artzainak Ameriketan' 21:47

Ttipi-Ttapa telebistik ekoiztutako saioa da Euskal Artzainak Ameriketan saioa. Eguaztenero bezala, GOITBn duzue ikusteko aukera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bividunak: Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Gertutik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Euskal artzainak.
22:15 Ur eta Iur.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 3



> Musika eskaintza zabala 'Musikantoi' saioan 22:15

Musika zaleok, Goiena Telebistan duzue zita eguneero. Era eta estilo guztietako musika taldeen gaineko saioak Maider Arregiren eskutik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marrazki bividunak.
14:15 Euskal artzainak.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ur eta Lur.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bividunak: Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Gertutik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Gertutik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Jazz gauak.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 4



> 'Ilunpean' saioan, Karmele Jaio idazlea 22:15

Kazetari gas-teitarra Emakunde prentsa arduraduna eta idazlea ere bada. Harremetan oinarritutako hainbat liburu argitaratu ditu.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Animalia.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Musikantoi.
16:15 Ur eta Iur.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bividunak: Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Erreportajea Ttipi-Ttapa.
18:45 Berriak.
19:15 Ikusmira.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Animalia.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Musikantoi.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Teknopolis.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Zea Mays eta Angeren kontzerturako sarrerak 10:30

Datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, Zea Mays eta Anger musika taldeek Arrasateko 3.60 aretoan eskainiko duten kontzerturako sarrerak zozketatuko ditu hots egiten dutenen artean Arrasate Irratiak.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; Oihuka diskotekoxo sortzaile izandako Ritxi Aizpuru; Zaharrak berri saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Ilunpean Teknoberriak Igo Errubrera! Kantaka Zaharrak Berri Astearen errepasoa Zozketak Zorionagurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com, goiena.net)) 11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia 12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Leire Bedia Kazetaria

" Ez zait gustatzen Bilbo, faltan botatzen dut Arrasate "

MIREN ARREGI > ARRASATE

Gaztean lana egiten du Leire Bedia arrasatearrak. Euskadiko trafikoa kudeatzeko zentrotik, Euskadiko errepideen egoeraren berri ematen du egunero Gaztean eta baita EITB Irratian ere. Bilbon ematen du aste barrua, baina deseatzen egoten da astebukaera iritsi eta herrira itzultzeko. Giza Zientziak eta komunikazio ikasketak burutu zituen Donostian.

Oporrik izan duzu Aste Santuan?

Bost egun izan ditut eta Asturiaren izan naiz. Askori moduan, eguraldi txarra tokatu zaigu eta... Berriz oporrak izango banitu Arrasaten geldituko nintzateke eta ondoren, eguraldi ona egiten duen toki batera joango nintzateke, baina gertu.

Nola egiten da lana trafikoa kudeatzeko zentro batetan?

Telebistan errepidearen berri ematen dutenean batzuetan agertzen diren pantaila handi horietakoak ditugu, baina ordenagailuan. Irratian konexioak ditugun bakoitzean begiratzen ditugu pantailak ezohiko zerbait ikusten dugun ala ez jakiteko. Ondoren Ertzaintzara eta Foru Zainagoara deitzen dugu konfirmatzeko, hori egiten ez bada ezin da-eta ezer esan irratiz. Herritarren deiak ere oso fidagarriak izan ohi dira.

Errepidean ordu asko ematen dituzu?

Ez daukat gidabaimenik. Paradozikoa da, logikoa dirudien arren, ez dut gidatzeko baimenik atera.

Komunikazioko ikasketak egin dituzu. Beste alor batzuk lantzeko gogorik baduzu?

Garbi dago oraingoa nire bizitako lana ez dela. Norberak beti gurako luke saio propio bat eduki. Irratia asko gustatzen zait. Gustatuko litzadeke magazine formatuko saio bat egin ahal izatea, irratiak. Magazine kulturala izango litzateke; politika eta prentsa arrosarik gabeko magazine kultural bat.

Zer eramango zenuke Arrasatetik Bilbora?

Dena. Ez zait Bilbo gustatzen. Niri gustatzen zait alde guztietara oinez joatea, eta batez ere behar dut taberna joan eta lagunak ez badaude ere, hango jendearekin egon ahal izatea.

asteo hitzorduak

Antzerkia



OÑATI, ARRASATE
> 'Grönholm metodoa' antzezlana egingo du Txalok aste bukaeran

Grönholm metodoa antzezlana egingo dute zapataun, Oñatin, Santa Anan, 22:30ean eta domekan, Arrasaten, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan eta www.kutxa.net webgunean.

Kontzertua



ESKORIATZA
> 'Garage rock' kontzertua egingo du Los Ajustadores talde arabarrak

Arabako Los Ajustadores taldeak *garage rock* estiloko emanaldia egingo du apirilaren 4an, egubakoitza. Rock klasikoa bluesarekin edo rock garaikidearekin bateratzen dute. Inkernu tabernan joko dute, 22:30ean.

Zinema



ELGETA
> 'Juego sucio' thrillerra emango dute etzi Elgetan, zineklub saioan

Juego sucio delako filma emango dute etzi Espaloia antzokian, 21:30ean. Hong Kong-eko filma da, 2002koa, eta polizian eta mafian dauden bi espioiren gainekoa da. Martin Scorsese-k *Infiltrados* filma horretan oinarritu zuen.

kuxkuxeroa



Jasone Zabala

Asteburuko
ordu
aldaketak...

Atzo ordu bat gutxiago lo eginda jaiki ginenguztiok, eta gaur ere berdin. Kosta egingo zaigu ohitzea baina aste bat pasatu ondoren, denok ordu bete gutxiago horri diogun amorraxio ahaztuta daukagu.... Beste gauza batzuek ahazten ditugun bezala... edo ez, nork daki! Asteburu honetan **Espainiako Karate Txapelketa** jokatu da Gasteizen, eta bertan parte hartu duten bi debagoiendarren lana txukuna izan da. Txapelketa hertzeko pasa izan dituzten gazi gozoak atzoko ordu aldaketaren ondorioz ahaztuta izango dituzte honezkerro. Baino ordu

**"Pasa den astea,
baina, Bergarako
Santa Marina elizako
aparkalekuaren egunero
izan nuen lekua"**


aldaketak ahaztu ezin duena zera da: **Antzuolako** iturriak auzolanean konpontzeari ekin diotela eta jende gutxi apuntatu dela lan horietan laguntzeko. Ordu aldaketek ez baitute ulerzen iturri bazterretan dauden sastrakez...

Aste Santua eta Pazko astea pasatuta, ordu aldaketa honek berriz ere **Debagoieneko** herrietako kale eta izkina denak autoz beteko ditu berriz ere. Pasa den astea, baina, **Bergarako Santa Marina** elizako aparkalekuaren egunero izan nuen lekua. Gezurra zirudien... Jendeak euroari errua botatzen dio, guztia garestitu delako... baina oportetara jendea asko joan da. Ordu aldaketak ez baitu atsedenez ulertzen, eta ordu bietatik hiruretarra erlojuko orratzak aurreratuta edo-eta alderantziz egin, denak berdin jarraituko du.

((112))
SOS DEIAK



OÑATI
Braulio Zubia
Martxoaren 18an. Zorionak, aitaaita, ta segi betiko mouko sendo. Besarkada bat famelixa danan partetik.



BERGARA
Jon Lazcano Palacios
Martxoaren 19an 3 urte. Zorionak, txapeldun! Hiru marrubizko Patxo handiak gure mutiko politenari, familia guztiazen partez.



BERGARA
Danel Gantxegi
Martxoaren 17an, 6 urte. Zorionak eta Patxo handi bat etxekeoen partetik.



OÑATI
Julene Urrutia
Martxoaren 20an. Zorionak, Iulene! Ondo pasau zure egunian. Patxo haundi bat etxekeoen partetik.



BERGARA
Nahira Azkarate
Martxoaren 20an, 8 urte. Zorionak eta patxo bat guraso eta Lierniren partetik.



BERGARA
Maitane Gomez
Martxoaren 20an. Tio Kote eta etxekeoen partetik, zorionak.



OÑATI
Alazne Agirre Bikuña
Martxoaren 21ean. Zorionak, Alazne! Dagoeneko 12 urte-tzar! Ondo-ondo pasau zure eguna.



ARRASATE
Haizea Fernandez Loiti
Martxoaren 21ean 14 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiakoen partetik!



BERGARA
Aitor Goiti
Martxoaren 22an. Zorionak eta ondo ondo pasa! Las Tanga Girls.



ARRASATE
Amets Arexolaleiba Erretolatza
Martxoaren 22an 4 urte. Zorionak, gure etxekeo Marijaia! Patxo potolo bat.



ARETXABAleta
Iker Perez Gaztañaga
Martxoaren 22an, 6 urte. Zorionak, Iker superheroia, Xabi superheroia.



ARRASATE
Elene Lezeta
Martxoaren 23an 4 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi superheroia lagunen partetik.



OÑATI
Mikel Bengoa Perez
Martxoaren 24an. Zorionak, etxekeo danon partetik, ondo pasau.



OÑATI
Leire Igartua
Martxoaren 25ean. Zorionak, Leire! Laztan handi bat kuadrillakuen partetik.



BERGARA
Maialen Fernandez de Lezea Eguren
Martxoaren 25ean 5 urte. Zorionak, etxekeoen partetik, bereziki Andoni.



OÑATI
Auritz Esnaola Osinaga
Martxoaren 27an. Zorionak, Auritz! Ondo pasau zure inguruko danakin. Patxo potolo bat.



ARRASATE
Bitxori Belaustegi
Martxoaren 27an. Zorionak amama eta muxu handi-bandi bat, Jon, Julen, Maider, Manex eta Iratiren partetik.



ARRASATE
Ixone Garitaonaindia Uriarte
Martxoaren 27an 4 urte. Zorionak, etxekeoen partez, bereziki Urki eta Hodei.




BERGARA
Itxaso Arzak
Martxoaren 29an. Zorionak eta laztan handi bat etxekeoen partetik.



ARRASATE
Danel Ezpeleta Larrañaga
Martxoaren 30ean 4 urte. Ondo pasau zure urtebetzez egunean. Zorionak, Madrileko osabizaben partez.



ARRASATE
Naroa Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Pablo, Malen, Aner, Martin



ARETXABAleta
Izeia Garai Lazkano
Martxoaren 31n. Zorionak, poxpolin! eta patxo potolo bat zure lehen urtebetetzean. Etxekeoen partetik.



OÑATI
Leire Ibarrondo
Martxoaren 31n 10 urtetxo. Besarkada handi bat gurasoentzat.



ARRASATE
Markel Laskurain Arreseigor
Apirilaren 1ean, 7 urte. Zorionak pitxin etxekeo guztiaren partez eta bereziki Aneren



OÑATI
Nahikari Osorio Blanco
4 urte! Ondo pasau zure egunean eta patxo handi bat etxekeoen partetik!



BERGARA
Ixone Garitaonaindia Uriarte
Martxoaren 31n 2 urte. Zorionak eta patxo pilatzea aizipza Nahia eta etxekeo guztien partetik.




ARRASATE
Maike eta Lia Axpe
Martxoaren 31n 2 urte. Zorionak eta patxo pilatzea aizipza Nahia eta etxekeo guztien partetik.



BERGARA
Maren Beltran de Gebara
Apirilaren 1ean 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta laztan handi bana. Izeba, osaba eta bereziki Maitaneren partetik.



BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean 9 urte betetzen ditu. Zorionak etxekeoen partetik.



ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratz geru, **100 euro**.
Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



Ibilgailu klasikoen martxa. Joan den egubakoitzean ibilgailu klasikoen martxa neurtua pasatu zen Elgetatik. Bizkaiko Motorzale Elkarteak hiru eguneko martxa neurtua antolatu zuen ibilgailu klasikoendako eta Elgetatik bi alditan pasatu ziren: 19:15ean eta 23:45ean.



Pake Lekuko erretiratuek antzerki emanaldia. Zapatuan Santa Ana aretoan *Bidaia bat egingo dugu* antzezlanan eskaini zuen Pake Lekuko erretiratuen ikusi Makusi taldeak. Antzezlanan komedia bat da, hiru lagun 15 egunetarako Benidormera doazenekoa, eta honen kontura beraien artean sortzen diren gora beherak antzezten dituzte. Antzezlanan hau Oñatin egiten duteneko laugarren aldia da. Taldea bederatzitako aktorek, zuzendaria Asun Azurzak eta eskenatokia ipintzen duenak osatzen dute. Azurzarekin hitz egin genuen eta pozik dago jasotako erantzunarekin: "Adin guztietako jendea etorri da orain arte gure ikusizunera, eta eskertzekoa jaso dugun erantzuna".

Bergarako eskubaloi sailak antolatuta kontzertua egon zen zapatu gabeen gaztetxean. Hiru taldek jo zuten zapatuan Bergarako gaztetxean. Lehen taldea Folsom Four talde berargarra irudian izan zen. Hauek kanta irlandesak abestu zituzten, eta kontzertoak akustikoa izan zen. Bigarren taldea, Iruñako Electric Riders izan zen. Hauek Rock and roll sirkodelekua jotzen dute. Taula gainera igotzen azken taldea Royal Canal Iruñarra izan zen. Nafarrrek beraien azken disko berria aurkeztu zuten. Goizaldera arte iraun zuen festak, eta guztira 200 pertsona egon ziren gaztetxean kontzertuak ikusten. Kontzertuaren helburua Bergarako eskubaloi sailekoendako dirua lortzea izan zen, eta gustura azaldu ziren antolatzaileak.



Kontzertua Ziripot tabernan. Zapatuan Bergarako Ziripot tabernan kontzertua eman zuen iluntzean, Reusetako etorritako La Voz de los Nadie taldeak. Espaniar estatu osoan ari dira kontzertuak ematen beraien lehen lana aurkezteko: *Aquella que tambien se equivoca*. Taldea bi kidek osatzen dute eta pop-rock musika da beraien estiloa. Ziripot tabernara hurbildutakoek gozatu ona hartu zuten.

jaiotakoak



Izaro Etxabe Elorza
Arrasate > 3,980 kilo. Otsailaren 26an. Gurasoak: Olatz (Arrasate) eta Lander (Arrasate). Argazkian, Izaro Ander Lehengusarekin.



Iker Moncayola Garcia
Bergara > 3,250 kilo. Otsailaren 29an. Gurasoak: Antxone (Bergara) eta Josu (Bergara). Argazkian, Iker.



Telmo Balmori Reparaz
Bergara > 3,600 kilo. Martxoaren 26an. Gurasoak: Nerea (Bergara) eta Dani (Bergara). Argazkian, anaia Jon eta amarekin.




Alba Rueda Nolasco
Arrasate > 3,090 kilo. Martxoaren 26an. Gurasoak: Kenya (República Dominicana) eta Jose Miguel (Arrasate). Argazkian, Alba Bakarrik.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Iñaki Bengoa > Gose taldeko kidea eta Shot! grabazio estudiokoa

"Film batendako kantua egiteak eragin itzela du"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Iñaki Bengoa aspalditik da musikari. Los Albertos, Bad F-Line eta Gose taldeetako sortzailea da. Baino, horrez gain, soinu teknikari lanak egiten ditu Shot! grabazio estudioan eta Gatillazo taldearekin zuzenekoetan, besteak beste.

Urte askoan burrukatu duzu trikia eta elektronika batzenko... Merezi izan du ahalegin guzti horrek?

Bai, merezi izan du, bakarrik proba egiteagatik. Urte asko pasa ntuuen ideia horrekin bueltaka, Bartzelonan bizi nintzenetik. Trikitia ikusten nuen bakoitzean pentsatzen nuen horretan, eta Euskal Herrian asko ikusten dira.

Hasieran esaten zenuten Gosek hedabide batuetan betoa jarrita zuela, eta gerora talde *mediatikoa* bihurtu zarete. Estrategia bat izan da?

Orain ere betoa jarrita daukagu, baina askotan gutaz berba egin behar izaten dute. Zerikusi handia izan du *Eutsi* filmak. Eragin handiagoa du film baten abesti baten sartzeak disko bat egite-

ak baino. Baina, zoritzarrez euskarazko hiru film bakarrik egin dira, eta ez dirudi jarraipenik izango dutenik.

Carlinhos Brown eta Juliette Lewisena kasualitate hutsak izan dira; gu horren bila joango bagina, ez genuke lortuko.

Zer esaten dizuete trikitiaren puristek?

Ez dut uste Gose gustatzen zaienik, baina egia da gazteak trikia jotzen ikustea poztu egiten dituela. Baina trikitia klasikoaren dako iraultza handiagoa izan

TEST-A

Herria: Arrasate. **Adina:** 39 urte. **Ikasketak:** Irudia eta Soinua. **Zale-tasunak:** Musika eta soinua, biak oso gustuko ditut. **Punka zara?**

Musikari dagozkionez ez, baina jarreran bai, matxinatu beharra dago. Eta eskura daukaguna era-biltzen dugu, trikitia eta ordenagailua, *do it yourself*. **Zer behar du abesti batek ona izateko?** Oso argi daukadana da abesti bat ona bada, berdin dela desafinatura edo lau pistatan grabatuta egon.

da Kupela taldeak egin duen bideo-klipa, Goseren ibilbidea baino. Ez dakit nork egiten duen kalte gehiago!!

Talde guztiak itzultzen diren honetan, ikusiko dugu Los Albertos agertoki gainean? Zer oroitzapen dituzu?

Ez (barreak). Itzulera horiek ez ditut oso gustuko. Zerbait berria edo interesgarria emateko baduzu, edo *mono-a* kentzeko pare bat kontzertzua badira, ondo; baina, bestela...

Los Albertos egin ez bagenu, ez nintzateke hemen egongo... Katalunian ikasten ninenbilen orduan eta *Rock catalá*-ren garaien, guk gaztelera abestuta, lehenengo saria irabazi genuen lehiaketa baten.

Biona taberna askorendako ikurra izan da. Zuretzat?


Bai. Badaude leku batzuk, lehengo elizak moduan, jendea elkartzeko ezinbestekoak direnak, eta horietako bat zen. Kanpotar askorendako Arrasateko erreferentzia izan da. Eta herriko gauza asko han hasi ziren.



SOINUA Soinua dauka pasio eta lanbide Iñaki Bengoak.

JOSEKO ARANTZABAL

ai, ene!



Hitzak hatz koskorretan

Robert Mitchum aktoreak *La noche del cazador* filmean Love eta Dead hitzak hatz koskorretan erakutsi zituenetik jarraitzaile ugari izan ditu. Ideia berririk bai?

<http://www.knuckletattoos.com>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal


Berriro

Hamazortzi urte betetzeko irrikan nengoen horixe egiteko. Ondoren, urtean hiru-palau aldiz egiten nuen, hamabost bat urtez. Osasun kontuak medio, egun batetik besera, utzi egin nuen. Bihotzez eta musu-truk egiten nuen. Ordainduz gero ez litzateke berdin izango. Borondate ona pizten zuen niregan hori egiteak; beste norbaitengana joaten zelako niretzat premiazkoia izanik, behar ez nuen zerbait ematen nuenean. Ez naiz bakarra. Hainbat gizon emakume hilean behin elkartzten dira horixe egiteko, eta honi esker, ezagutzen ez ditugun hainbat pertsona gaixotasun bateko zurrubilo gaizto batetik ateratzen dira. On egiten duzu eta ez dakizu nori

egin diozun on. Ba al dago norbaiti mesede egin eta nori egin diozun ez jakitea baino dohaintsun handiagorik? Hiru hilabetean behin egitea nahikoa da. Ordu erdiko tartetxo bat nahikoa da, nik behar ez dudan poltsa horrekin bizitzaren miraria sortzeko, hil zorian dagoen norbaiti bizitza salbatzeko. Eta horrexek aberasten gaitu. Ez al genuke -pentsatzen jarri naiz- geure gutiziak alde batera utzi eta indarrak batuz aurrera egin behar, eguneroko martxan, zailtasunetan eta herri lanean? Badira ia hamabi urte hau egiten ez nuela eta berriro horixe egiteak aberastu nau, norbait aberastu du, nik nor den jakin gabe. Odola eman dut.



eguraldia



MAXIMOA

+13

MINIMOA

+05

Hodeiak oso ugariak izango dira eta zaparradak botako ditu. Apurka-apurka egunaren amaieran atertzeko joera izango du.

www.euskalment.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiarren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Trikitixa
Bexamelha ta pasta! (Maka txikia) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kipa Junkerka) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nirk ja! (Tapis) | **HIK**
Itisas onti batén (Kaxiano) | **ITSIAS**
Kupela (Epidia eta Larrañaga) | **KUPELA**
Milu galderia (Alatz / Maider) | **MILAU**
Nirgekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kipa Junkerka) | **HIRA**
Txampon batzen truke (Alatz / Maider) | **TXAMPON**

Hiruak
Ebari | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Realia | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrrikoak
Bagarei | **BAGARE**
Deside Santurce a Bilbao | **DESIDE**

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

IKURRI4 ADARIAK MUSKARIA EGUZKILORE1
EH1 BABAK KALABERA1 EGUZKILORE2
BILBO BERAKATZAK POPATIK EGUZKILORE3

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratzen zure poltsikoko telefonorako bateragarria den eskaizten ditugun produktuekin, helbidea honetan: www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko duzu beharreko ditzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukak eskaizteneko, beharreko da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzezko, jar zaitez zure horriztalearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta kb gaisiera bakarrik ordindu beharko duzu. Kasu guztietai deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan da.

* Euskaltel: deitu 902 04 02 00 telefona / * Vodafone: deitu 123-47 / Movistar: deitu 699-47.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantzaz diuzula, jari gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefona.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriari egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezaketa nahi baduzu, jari gurekin harremanetan deitu 902 01 21 48 telefona.